

Txostenaren aldia
2021eko uztailetik 2022ko ekainera bitartean

**Euskal autonomia erkidegoan 1978 eta 1999
bitartean izandako motibazio politikoko
indarkeria egoeran
giza eskubideen
urraketak jasan
dituzten biktimei
errekonozimendua eta
erreparazioa emateko**
**Balorazio Batzordearen urteko Bigarren
Txostena**





Giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei
errekonozimendua eta erreparazioa emateko Balorazio Batzordea
2021eko uztailetik 2022ko ekainera bitartean

Uztailaren 28ko 12/2016 Legearen 18.5 artikuluari eta **motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa** emateko prozedura garatzen duen otsailaren 25eko 20/2020 Dekretuaren 12. artikuluari jarraiki, Balorazio Batzordeak (aurrerantzean, Batzordea) urteko txostena egin behar du, eta txosten horretan, gutxienez, bere lanaren alderdi hauek azaldu:

- a) Sarrera bat, txostena denboran eta edukiei dagokienez kokatuko duena.*
- b) Egindako lanen kontu-ematea; gutxienez, lanaren eta ikerketen emaitzak, bildutako datuen ezaugarriak, aurkeztutako eskabideak eta gertatutakoa zehatz-mehatz eta benetan ezagutzen lagunduko duen beste edozein datu jaso beharko ditu.*
- c) Uztailaren 28ko 12/2016 Legea ezartzean, bereziki, eta giza eskubideen urraketan biktimak aitortzeko politiketan, oro har, hobetu beharreko arloei edo garatu beharreko ekimenei buruzko gomendioak.*

Agiri honen helburua, *Batzordearen urteko bigarren txosten* gisa, konpromiso horri erantzutea da.

Legean aurreikusitako eskemari jarraituz, txosten hau honako atal hauen arabera egituratzen da:

I. Sarrera

II. Egindako lanen kontu ematea

1. Balorazio Batzordea.
2. Egindako lanak.
3. Aztertutako kasuen izaera eta ezaugarriak. Adibide batzuk.
 - 3.1. Poliziaren zaintzapean hiltzea.
 - 3.2. Bala-tiroen ondoriozko heriotzak.
 - 3.3. Exekuzio arbitrarioarekin edo epailetzaz kanpokoarekin bateragarriak diren heriotzak.
 - 3.4. Talde parapolizialaren atentatuan gertatutako heriotzak.
 - 3.5. Balaz zauritutako pertsonak.
 - 3.6. Gomazko pilotek zauritutako pertsonak.
 - 3.7. Tortura eta tratu txar larrien kasuak.
 - 3.8. Eskuin muturreko taldeen edo talde parapolizialen beste eraso batzuk.
 - 3.9. Biktimei sufrimendua eragiten dieten beste ekintza eta ez-egite batzuk.
 - 3.10. Biktimek eskatzen dutena.
4. Lege-medikuntzaren eta -psikologiaren ikuspegia.

III. Gomendioak

1. Balorazio Batzordeak 2021eko ekainaren 23ko txostenean egindako gomendioen betetze-maila.
2. 2022ko ekainaren 29ko txostenerako gomendioak.

I. Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politiko-indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko uztailaren 28ko 12/2016 Legea uztailaren 28an onartu zen, eta 2016ko abuztuaren 10eko EHAAn argitaratu.

Eskaerak aurkezteko epea 2021eko abenduaren 13an amaitu zen, eta honako hau izan da jasotako eskaeren azken kopurua:

- Aparteko lehen aldia:
Jasotako eskaeren kopurua: 89. Ebatzitako espedienteak: 71.
- Bigarren ezohiko aldia:
Jasotako eskaeren kopurua: 169. Ebatzitako espedienteak: 72.
- Ohiko aldia.
Jasotako eskaeren kopurua: 999 (horietatik 36 epez kanpo). Ebatzitako espedienteak: 472.

Batzordeak, aldi horretan, askatasunez, zorroztasunez eta emaitzak aurkeztuz egin du lan hori, hain zuzen ere uztailaren 28ko 12/2016 *Legea pertsonaren alde* interpretatuz, eta horrek bere jardueraren erdigunean jarri ditu giza eskubideen urraketan biktimatzat aitortuak izan direnak. Hala aitortu dute Eusko Legebiltzarraren osoko bilkurak, 2022ko otsailaren 17ko saioan berariaz babestu baitzuen Batzorde honek egiten duen lana, bai eta beste gizatalde batzuek ere (Gizarte Foro Iraunkorra), beren esker ona helarazi baitigute egindako “lan garrantzitsuagatik” eta “egia bilatu eta aurkitze-ko egindako ikerketa-lan goresgarriagatik”.

Horrek ez du esan nahi egindako bidean oztoporik egon ez denik. Iazko txostenean Legearen aurkako etengabeko inpuignazioak nabarmendu genituen, praktikan Batzordearen lanen hasiera ia bi urtean atzeratzea ekarri zutenak, eta horrek biktimentzako kaltea ekarri zuen; orain, berriz, txosten honen xede den aldian bitarteko eta energia asko erabili behar izan dugu Euskal Autonomia Erkidegoan lekururiko Estatuko Segurtasun Kidego eta Indarretako kideek edo motibazio politikoagatik ETArren edo bere inguruko indarkeria jasan zuten pertsonak egindako 500dik gorako eskaera kopurua ebazteko. Eskaera horiek, publikoa denez, ez dira onartu; izan ere, Batzordearen iritziz, ez daude uztailaren 28ko 12/2016 Legearen aplikazio-eremuan sartuta. Administrazio-prozedura ez da amaitu eskaerak ez onartzeko emandako 523 ebazpenekin, orain arte gora jotzeko 86 helegite aurkeztu baitira.

Kezkaz egiaztatu dugu oraindik ere badagoela eragile eta gizatalderik etengabe diharduenik lege honen garapenaren, aitortzen dituen biktimen babesaren, egia jakiteko eskubidearen eta, hala badagokio, erreparazio osoa jasotzeko eskubidearen aurka. Batzordetik adierazi nahi dugu hori onartezina iruditzen zaigula. Ez genuke onartuko beste mota bateko biktimekin. Bat berarekin ere ez. Ezta, beraz, artaturiko hauekin ere. Ezin dugu normaltzat jo ez eta ontzat ere lege honek onartzen dituen biktimak etengabe auzitan jartzea. Ez eta Batzorde honen jarduera atzeratu edo eragotzi nahi izatea ere, azken batean, atzerapenak zinez kaltetzen dituenak biktimak berak baitira.

Giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak esparru juridiko sendoa aurreikusten du, biktima guztiek giza eskubideen ageriko urraketengatik ordaina jasotzeko duten

eskubidea aitortzen duena. Arau-esparru hori eta nazioarteko jurisprudentzia egon arren, maiz biktimek ez dute uste eskubide hori gauzatu denik. 12/2016 Legeak babes-ten dituen egoeretan ere, non erreparazio egitarau berariazkoak ezarri diren, jarraian zehazten den moduan arazo asko dago biktimei erreparazio egokia, azkarra eta osoa emateko.

Batzorde honek honako oinarritzko premisa hau lantzen du: erreparazio-egitarauak biktimak berdintasunez eta koherentziarekin artatzeaz arduratu behar dira, bakar bat ere estigmatizatu gabe eta biktima guztiek erreparazioa jasotzeko –egokia, eragin-korra eta azkarra– duten eskubidea ezin da baldintzatu testuinguru politikoaren edo eragile edo agintari jakin batzuen borondatearen –edo borondaterik ezaren– arabera.

II. Buruturiko lanen kontu ematea

1.- Balorazio Batzordea:

Batzordea 2018ko uztailaren 10ean eratu zen formalki. Harrezkero, hainbat arrazoi-erengatik, honako aldaketa hauek egin dira osaeran:

- Carlos Cubero Santosen ordez José Luis Cárdenas Galán jarri zen, eta haren ordez, berriz, Maite Izaguirre Loroño, biktimen arloan eskarmentua duen auzitegi-ko medikua.
- David del Valle Pérezen ordez Julia Lamas Ruiz sartu zen, biktimen arloan eskarmentua duen auzitegi-ko medikua.
- Alberto Ramírez Álavaren ordez Víctor Verano Zapatel jarri zen, biktimen arloan eskarmentua duen auzitegi-ko medikua.
- María Ángeles Elicegui González, auzitegi-psikologoa, Amaia Bóveda Gómezek ordezkatu zuen, dagoeneko Batzordean ordezko lanpostua betetzen zuenak. Ordezko psikologo lanpostua Ana Imaz Llano Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeko auzitegi-psikologoak bete du.
- Eloína Mayo Caberok batzordea utzi zuen eta duela gutxi Eusko Legebiltzarrak José Luis Aurtenetxe Goiriena izendatu du bere ordez.

Horrenbestez, Balorazio Batzordearen egungo osaera jarraian datorrena da:

Titularra: Monika Hernando Porres, Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren zuzendaria.

Ordezkoa: Miren Aintzane Ezenarro Egurbide, GOGORA, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria.

Titularra: Jon Mirena Landa Gorostiza, Zuzenbide Penalean espezializatutako le-
gelaria.

Ordezkoa: Enara Garro Carrera, Zuzenbide Penalean espezializatutako le-
gelaria.

Titularra: Sabino Ormazabal Elola, biktimen arloko aditua.

Ordezkoa: Bertha Gaztelumendi Caballero, biktimen arloko aditua.

Titularra: Luis Sala González, historialaria.

Ordezkoa: Jon Penche González, historialaria.

Titularra: Juana María Balmaseda Ripero, lege honek arautzen duen gaian aditua. Batzordeko lehendakari hautatu zuten, Legearen 17.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Ordezkoa: Felipe Gómez Isa, lege honek arautzen duen gaian aditua.

Titularra: José Luis Aurtenetxe Goiriena, legelari aditua lege honetan arautzen den gaian.

Ordezkoa: Josu Oskoz Barbero, lege honek arautzen duen gaian aditua.

Titularra: Francisco Etxeberria Gabilondo, lege honek arautzen duen gaian aditua.

Ordezkoa: Miguel Ángel Navarro Lashayas, lege honek arautzen duen gaian aditua.

Titularra: Benito Morentin Campillo, biktimen arloan eskarmentua duen auzitegiko medikua.

Ordezkoa: Maite Izaguirre Loroño, biktimen arloan eskarmentua duen auzitegiko medikua.

Titularra: Víctor Verano Zapatel, biktimen arloan eskarmentua duen auzitegiko medikua.

Ordezkoa: Julia Lamas Ruiz, auzitegiko medikua, biktimen arloan eskarmentua duena.

Titularra: Amaia Bóveda Gómez, biktimen arloan eskarmentua duen auzitegi-psikologoa.

Ordezkoa: Ana Imaz Llano, biktimen arloan eskarmentua duen auzitegi-psikologoa.

Idazkaritza teknikoa: María Ángeles Sánchez Amado, Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzako teknikaria.

2. Buruturiko lanak:

	Deialdiak	Osoko bilkurak	Lekukotasunak jasotzeko saioak	Egindako elkarrizketak	Ebatzitako espediente kopurua
2021-iraila	3	2	1	5	0
2021-urria	4	2	2	8	475
2021-azaroa	2	0	2	10	0
2021-abendua	3	3	0	0	53
2022-urtarrila	3	2	1	5	13
2022-otsaila	4	3	1	5	11
2022-martxoa	3	2	1	3	10
2022-apirila	3	1	2	10	7
2022-maiatza	2	1	1	5	
2022-ekaina	4	4			2
Guztira	31	20	11	51	571

2021eko uztailetik 2022ko ekainera bitartean, Batzordea 31 aldiz deitu da. 20 osoko bilkura egin dira, dagozkien deialdiekin eta gai-zerrendekin. Biler horien aktak idatzi dira.

Osoko bilkura horiez gain, eta Legearen 14.2.a artikuluan eta Dekretuaren 6.c) artikuluan ezarritakoari jarraiki, Batzordea 11 aldiz bildu da modu monografikoan biktimen lekukotasunak biltzeko, eta ikus-entzunezko 46 erregistro lortu ditu, 50 espedienteri dagozkienak.

Biktimen lekukotasunen ikus-entzunezko erregistroak egiteko, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzak Aranzadi Zientzia Elkartearen zerbitzuak erabili ditu, antzeko lanetan eskarmentu egiaztatua baitu (grabazioak frankismoaren biktimekin eta ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren esparruan aitortutako biktimekin).

2020ko ekainetik 2021eko ekainera bitartean 35 espediente ebatzi ziren. 2021eko ekainaren 26an, ekitaldi publiko bat egin zen Bilboko Euskalduna Jauregian, non biktimek eta haien senideek eskura jaso zituzten Eusko Jaurlaritzaren irizpenak eta ebazpenak.

Aztertutako aldian **573 espediente ebatzi dira**, eta horietatik:

- 46 aitorpen-ebazpenak izan dira.
- Egindako bi eskaera interesdunak berak atzera bota ditu.
- 2 eskaera ezetsi dira.
- 523 ez onartzeko ebazpenak izan dira. Onartu ez diren eskaera horietatik, 473 Estatuko Segurtasun Kidego eta Indarretako kideek aurkeztu dituzte, eta 50

motibazio politikoagatik ETaren edo bere ingurukoen indarkeria jasan zuten pertsonak.

Ez onartzeko arrazoiak:

- 523.- Alegatutako gertakariak ez daude uztailearen 28ko 12/2016 Legearen esparruan; izan ere, ez dira botere-gehiegikeriak edo Estatuaren indarkeriaren erabilera ez-legitimoak eragindako gertakariak edo urraketak, eta ez dago lotura berehalakorik ez funtzionalik botere publikoen eta Estatuaren jarduerarekin.

Ezesteko arrazoiak:

- 2.- Froga-osagairik eza.

Legearen eremuan ez egoteagatik onartu ez diren 523 espedienteetatik, oraingoz, gora jotzeko 80 helegite edo errekurtsio jaso dira, eta horietatik 15 epez kanpo daude.


Ebatzitako 573 espedienteetatik, 34 lehen ezohiko aldikoak dira, 74 bigarren ezohiko aldikoak eta 465 ohiko aldikoak.

2022ko otsailaren 27an, Orbaizetan (Nafarroa) egindako ekitaldi publiko batean (Eusko Jaurlaritzako kideak, batzordeburua eta Batzordeko beste kide batzuk izan ziren bertan), Mikel Zabalzaren familiari irizpena eta ebazpena eman zitzaizkion. Arrazoi askorengatik, Zabalzaren kasuan Batzordeak ahalegin handia egin behar izan du eta batez bestekoaren oso gainetik giza- eta material-baliabide ugari erabili (besteak beste, epaitegiko informazioa eta epaitegiz kanpokoa egundokoa baitzen, oso zorrotz aztertu behar izan zena lan protokoloa ezartzeko garaian, baita epaitegiko adituen txostenak lantzerakoan ere).


Batzorde honek pozez egiaztatzen du bere esku-hartzeak, kasu zehatz honetan, aztertutako gertakarien salbuespenezko izaeragatik eta gizartean izan duen oihartzun handiagatik, lagundu egin duela, lege honen aurreikuspenen arabera aitortutako giza eskubideen urraketan biktima guzti-guztien eta horietako bakoitzaren alde egiten duen lana ikusarazten.

46 Aitorpen-ebazpenei buruzko informazioa


Sexuaren arabera:




Gertakarien uneko adina:




Gertakarien kokalekua:




Gertakariaren data:



Eragindako kaltea:




Eragilea:




Biktimaren atxikimenduagatik:


Alderdi, sindikatu eta erakunde ezberdinak:



ETArekin loturikoak:



Bestelakoak:



Batzuetan, familiako kideak biktima bihurtzen dira etxebizitza edo familia-negozioei egindako erasoetan, edo atxiloaldietan egindako gehiegikeriengatik. Halakoak ez ditugu kontuan hartu zenbaketa honetan.

Egindako bideratze edo instrukzio lanak

Dekretuko 6. artikuluekin bat etorriz, Batzorde honek –Idazkaritza Teknikoaren birtartez– hainbat epailetza, polizia, administrazio eta/edo osasun erakunderi informazioa eskatu dio, aditzera emandako gertakariak egiaztatzearen.

ZEIN ERAKUNDEREN AURREAN EGIN DIREN IZAPIDEAK	Egindako izapide kopurua
Erietzeak	7
Ferrolgo Artxibo militarra	12
Madrilgo Artxibo militarra	1
Arabako Probintzia Auzitegia	2
Gipuzkoako Probintzia Auzitegia	1
Auzitegi Nazionala	1
Auzitegi-medikuntzako Euskal Institutua	3
Auzitegi-medikuntzako Nafarroako Institutua	1
Auzitegi-medikuntzako Madrilgo Institutua	1
Madrilgo epaitegiak	3
IVAC / KREI	35
Bizkaia eta Gipuzkoako Probintziako Artxiboak	6
Erregistro zibila	3
Adituekin elkarriketa teknikoak	2
Txosten teknikoen eskaerak	2
Beste lekuko batzuekin elkarriketak	4
GUZTIRA	84

Zazpi aldiz egin da historia klinikoen eskaera hainbat ospitaletan (Madrilgo La Paz, Bilboko Basurtu, Barakaldoko Gurutzeta, Arrasateko San Juan de Dios, Bermeoko Psikiatrikoa). Jurisdikzio militarri dagozkion hamahiru espediente ere eskatu dira, bai Madrilgo 4. Artxibo Militarri, bai Ferrolgo Artxibo Militarri. Gainera, sei aldiz eskatu zaie informazioa Bizkaiko eta Gipuzkoako Probintzia Artxiboei.

Bestalde, espediente judizialak eskatu dira Arabako Probintzia Auzitegietan, bi aldiz, Gipuzkoan, behin, eta Auzitegi Nazionalan, beste behin, baita Madrilgo Zigor Arloko 3 zenbakiko Epaitegiari ere, hiru aldiz; autopsia-txostenak, hiru aldiz Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeari, behin Nafarroako Auzitegi Medikuntzako Institutuari eta beste behin Madrilgo Auzitegi Medikuntzako Institutuari. Heriotza-ziurtagiri literalak ere hiru aldiz eskatu zaizkio Erregistro Zibilari.

Kasu gehienetan, erakundeen jarrera lankidetzakoa izan da, baina beti ez da posible izan eskatutako informazioa lortzea, kasu batzuetan denbora asko igaro delako eta beste batzuetan, berriz, egindako eskaerari emandako erantzunaren arintasun edo argitasun ezagatik. Bereziki eragozpen gisa ikusten dugu artxibo militarren jarrera; izan ere, ezin izan dugu dokumentaziorik lortu orain arte egindako eskaeretatik. Adierazi behar dugu kezkatuta gaudela oso dokumentazio jakin bat eskuratzeko

bizkortasun eta ardura handiagorik ez dagoen neurrian, Batzorde honen lanari kalte handia egin dakiokelako. Horregatik, erakunde guztien lankidetzarako deia egiten dugu, eskatzaile askoren aurka baitoa denbora aurrera.

Nabarmenezkoa da IVAC/KREI erakundearekin lorturiko lankidetzaren ona. Erakunde hori arduratu zen Eusko Jaurlaritzarentzat “1960-2014 bitartean Euskal Autonomia Erkidegoko tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua” prestatzeaz. Egitasmo horretan aztertu ziren kasuetan, eta une oro datu pertsonalen babesa eta biktimen ohorerako eta intimitaterako eskubidea guztiz bermatuz, 35 espedienteri buruzko informazioa partekatu da.

Gainera, uztailaren 28ko 12/2016 Legearen 14 d) artikulua aurreikusten duen bezala, hainbat aldiz eskatu zaie txostena edo lekukotza izapidetutako eskaerei informazio garrantzitsua eman dieten pertsonari, gertakariak zuzenean edo zeharka ezagutzen dituztelako edo eskarmentua edo trebetasun teknikoa dutelako. Zehazki, osoko bilkuretako batean parte hartzera gonbidatu zituzten Xabier Arzoz Santisteban, UNED, Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionaleko Administrazio Zuzenbideko katedraduna, eta Iñigo Iruin, Zigor Zuzenbidean espezializatutako abokatua, hainbat alderdi teknikorik buruz zuten iritzia jakiteko eta bi aldietan ekarpen garrantzitsuak egin zituzten. Xabier Arzozen kasuan, gero txostena egin zuen egindako kontsultari buruz.

Beste batzuetan, funtsezkoa izan da biktimak ezagutu zituzten edo gertakarien lekuko izan ziren hirugarren pertsonen lekukotasuna, eta elkarrizketa gehigarri horiek lau aldiz egin behar izan dira.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegora igorritako Estatuko Segurtasun Kidego eta Indarretako kideek eta motibazio politikoagatik ETaren edo bere inguruko in-darkeria jasan zuten pertsonak egindako eskaerak uztailaren 28ko 12/2016 Legearen eremu objektibo eta subjektiboan sartu ahal izateari buruz irizpidea ezartzeko, eskaera horiei buruzko txostena eskatu zitzaion Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari, zeina oinarri gisa erabili ahal izan baitute Balorazio Batzordeko kideek eta baita Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzaren Sailburuordetzak ere eman dituen ebazpenak lantzeko garaian.

Guztira 84 instrukzio-izapide gehigarri egin dira, eta, horren ondorioz, espediente askok epe luzeagoa behar izan dute izapide horiek ebazteko eta, ildo horretan, horietako batzuk oraindik instrukzio fasean daude.

Gaur egun, 29 espediente instrukzio-fasean daude, eta horietatik lau aurreko urtetik datoz horrela.

Ez onartzeko 523 ebazpeni buruzko informazioa

2020ko irailaren 22an, Batzordeak aurretiazko txosten bat egin zuen Estatuko Segurtasun Kidego eta Indarretako kideek eta beste funtzionario publiko batzuek egindako eskaerei buruz. Txosten horretan, arrazoizko zalantza planteatzen zen eskaera horiek uztailaren 28ko 12/2016 Legearen eremu subjektibo eta objektiboan eduki dezaketzen kokapenari buruz.

Txosten hori Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari helarazi zitzaion, eta gai horri buruzko kontsulta formala planteatu zen. Kontsulta horri zuzendaritza horretako zerbitzu juridikoek erantzun zioten 2021eko apirilaren 15ean, eta emandako txostenarekin bat etorriz, Batzordea espediente horiek lantzen eta bideratzen joan da denbora horretan,

eta 2021eko urriaren 29ko osoko bilkurarako amaitu zen irizpen horietako gehienak ebazteko prozesua.

Irizpenak, ez onartzeko ondorioarekin ebatzi dira honako arrazoi tekniko eta juridikoengatik:

Uztailaren 28ko 12/2016 Legearen zioen azalpenaren eta artikuluen irakurketa eta hausnarketa eginda, eta lege horren aurrekariak aztertuta, koherentea da ulertzea arau honen bidez babestu nahi direla nolabait Estatuaren edo instantzia publikoen baimena, babesa edo onespena izan duten funtzionario publiko edo partikularren esku-hartzean jatorria duten giza eskubideen urraketak.

Izan ere, lege honek bat egiten du Eusko Legebiltzarraren bi legez besteko proposamenekin —2011ko martxoaren 31koa eta 2015eko ekainaren 11koa—, Eusko Jaurlaritzari eskatzen baitzioten legez aitor zitzala giza eskubideen aitortu gabeko urraketan biktimak, botere-gehiegikeriek eragindako urraketak edo poliziaren indarkeriaren erabilera ez-legitimoak eragindako urraketak.

Uztailaren 28ko 12/2016 Legearen onarpenarekin, aurreko arau-corpora osatzeko ahalegina egin zen, legez aintzatespena eta erreparazioa merezi duten biktimen unibertsoa zabalduz, terrorismoaren biktimak babesteko helburu berarekin aurretik emanda zegoen legeriarekin bat eginez (hala nola irailaren 22ko 29/2011 Legea, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Babes Osoa ematekoa, eta EAEn, 4/2008 Legea, ekainaren 19koa, Euskal Herrian Terrorismoaren biktima izandakoen aitorpena eta ordaintza edo erreparazioari buruzkoa).

Gainera, zioen azalpenean, 12/2016 Lege hau aurkezten da Euskal Autonomia Erki-degoan 1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei erreparazioa emateko ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren jarraipen gisa. Xedapen horren helburua da argi eta garbi aitortzea eragile publikoek egindako giza eskubideen urraketan biktimak, eta haren jarraipena dela aldarrikatzen du, hark ematen duen estaldura gerora zabalduz, 1978tik 1999ra bitartekora, hain zuzen ere.

Egia da 12/2016 Legearen 2.2. artikulua b) hizkiari emandako idazkeran, funtzionarioen parte hartzea eskatzea ez dela ezinbesteko baldintza, onartzen baita, era berean, bortxaketa taldean edo era isolatuan, bakarka eta kontrolik gabe jarduten zuten partikularrek eragindakoa izatea. Hala ere, aukera hori motibazio politikoko edozein jarduera mota legearen eremuan sartzeko irekitasun gisa ulertzea Legearen borondatea alde batera uztea bezainbestekoa da, eta horrek interpretazio hori ontzat ematea eragozten du. Izan ere, giza eskubideen urraketak uztailaren 28ko 12/2016 Legearen ezartze-eremuan sartuko badira, gutxi-asko berehalako lotura izan behar du botere publikoen eta Estatuaren jarduerarekin. Giza eskubideen urraketaren subjektu aktiboak zabaltzeak ez du haien jarduna Estatuaren edo haren ordezkari edo agintarien jardunetik aldentzen; aitzitik, talde edo gizabanakoei egiten zaien aipamenetan urraketa haien adierazpenetako bat zehazten du. Estatuaren jarduerarekiko lotura galduz gero, Legearen esparrua erabat irekiko litzateke, eta horrekin erabat galduko litzateke haren erregulazio-xedea, harekin zerikusirik ez duten beste erregulazio-alor batzuk inbadituz, hala nola terrorismoaren berezko eta berariazko alorra.

Idea hori bera errepikatzen du azalpen-zatian aipatzeak Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrina eta pertsonen bizitzarako eta osotasunerako eskubidea babesteko jurisprudentzia. Jakina denez, Auzitegi honi dagokio Giza

Eskubideen Europako Hitzarmenean (GEEH) jasotako eskubideen urraketak, estatu sinatzaileek eragindakoak, ezagutzea; izan ere, urraketa horiek legea txertatzen den esparru gisa aipatzeak esan nahi du badagoela urraketak jasan dituzten biktimak aitortzeko borondaterik urraketa horietan nolabait botere publikoak edo haren agenteek, ordezkariak edo agintariak esku hartu baldin badute.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, beraz, ondorioztatzen da balizko horiek ezinbestean garamatzatela ez onartzeko ebazpen-proposamenera; izan ere, alegatutako gertakariak ez daude Euskal Autonomia Erkidegoan motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei aitortpena eta erreparazioa emateko uztailaren 28ko 12/2016 Legearen ezarpen-eremuan sartuta.

Fede oneko eskaeren aurrean Balorazio Batzordeak nabarmendu nahi du, ez onartzeko ebazpen horrek ez duela esan nahi eskaera horien guztien atzean dagoen errealtatetik aldentzen denik. Eskatzaileak bere eskaeran kontatzen duen aldi nagusi zen egoera soziopolitikoarekin lotuta egon zitezkeen bizipen traumatikoak alde batera utzi gabe, Balorazio Batzordeak ondorioztatu du eskaera horiek ez daudela uztailaren 28ko 12/2016 Legearen ezarpen-eremuan sartuta.

Batzorde honen lanerako, bereziki hartu behar da aintzakotzat Legearen 4.2.a artikuluan jasotako printzipioa, biktimekiko tratu onari buruzkoa, kontuan hartuta biktimek izan dezaketen zaurgarritasun- eta desberdintasun-egoera berezia eta ahaleginduz eginbideak prozesu traumatiko berririk ekar ez dezan. Horregatik, Batzorde honentzat –betiere biktimekiko jokabide arduratsu, enpatiko eta solidarioak gidatuta–, funtsezkoak dira egia bilatzera eta biktima guztiak duintzera bideratutako ekimenak, inor baztertu gabe.

Hala ere, eskatzaileek aipatutako gertakariak ez dute giza eskubideen urraketaren biktima-izaera aitortzeko uztailaren 28ko 12/2016 Legeak eskatzen dituen baldintza formal eta substantiboak behar bezala bete izana ebazteko behar den osagairik; izan ere, ez dira botere-gehiegikeriak edo Estatuaren indarkeriaren erabilera ez-legitimoak eragindako gertakariak edo urraketak, eta ez dago lotura berehalakorik edo egizkizunekorik botere publikoen eta Estatuaren jarduerarekin.

Nolanahi ere, adierazitakoak ez du esan nahi eskaera horiek aintzakotzat hartu behar-ko lirakeenik, hala balegokie, terrorismoaren biktimei laguntzeko legeriaren arabera.

Eskaera zehatzak alde batera utzita, Batzordeak deitoratu egiten du balizko biktima horiek nahasten saiatzen ari direnen jarduna, legearen azken zentzuaren kontrako interpretazio-maltzurkeria agerikoan jokatuz ari baitira eta fede txarrez, jakin badakiten arren haien eskaerak bideratzen ari direla aldeko erantzunik eman ezin zaien alorrean. Gogor arbuiatzen ditugu Estatuko Segurtasun Kidego eta Indarretako biktimen eta ETAK kaltetutako beste pertsona batzuen oinazea manipulatu nahi dutenak, aldi berean, Batzorde honi ere traba egiten baitiote lana gehituz eta handituz, beren eskaerei azkar erantzungo zaiela itxaroten duten biktimei arreta egokia ematearen kaltetan. Beraz, tinko eskatu behar diegu, are ahakar eginez, gezurrezko arrazoiengatik dinamika hori bultzatzen duten norbanako eta/edo erakundeei, geldiarazteko berehala praktika txar horiek, biktima guztien etikaren, zintzotasun politikoaren eta duintasunaren izenean.

3. Aztertutako kasuen izaera eta ezaugarriak, eta ikuspegi biktimologikoa:

Batzordeak aztertu dituen kasuen konstelazioak askotarikoak dira eta larritasun handikoak. Batzordeko kideok, gaian aditu izan arren, maiz guztiz gainditu izan gaitu egiaztatzeak kasuek zenbateraino mina sortzen zuten, are gehiago biktimen eta haien senideen sufrimenduaren gaurkotasunagatik.

Horrek jabearazi behar gintuzke esku artean dugun gaia ez dela iraganekoa. Lege honetan aitortutako giza eskubideen urraketen biktimak gaur egun gure artean bizi diren pertsonak dira, emakumeak eta gizonak. Biktima batzuk hil egin dira, baina senideen eta maite zituztenen minak oso presente jarraitzen du gaur egun, eta arreta eskaini behar zaie.

Batzordeak honako kasu hauek aztertu eta ebatzi ditu:

- Poliziaren zaintzapean hiltzea.
- Bala tiroen ondoriozko heriotzak.
- Exekuzio arbitrarioarekin edo epailetzaz kanpokoarekin bateragarriak diren heriotzak.
- Talde parapolizialen atentatuetan gertatutako heriotzak.
- Balaz tiro egiteagatik zauritutako pertsonak.
- Gomazko piloten talkagatik zauritutako pertsonak.
- Tortura eta tratu txar larrien kasuak.
- Eskuin muturreko taldeen eta talde parapolizialen beste eraso batzuk.
- Aintzakotzat hartu beharreko beste sufrimendu batzuk.

Jarraian, frogatutzat eman diren giza eskubideen urraketa-motak, haien irismen biktimologikoa eta Batzorde honek espedienteak bideratzeko, argudiatzeko eta ebazteko modua ulertzen lagun dezaketen zenbait kasuren konstelazio horiek azalduko ditugu. Hori guztia kontuak behar bezala emateko, 20/2020 Dekretuaren 12.b) artikulua eskatzen duen bezala.

3.1. Poliziaren zaintzapean hiltzea

Guardia Zibilak Mikel Zabalza atxilotu zuen 1985ean, eta Intxaurrendoko kuartelera eraman. Polizia-ekintza horretan, halaber, haren neska-laguna, bi anai-arreba, haren lehengusua eta beste bi pertsona atxilotu zituzten. Guztiak kargurik gabe aske geratu ziren, eta torturak salatu zituzten. Zabalza ez zen bere etxera itzuli bizirik.

Batzordeak, kasu honetan egindako instrukzioaren argitan eta Legeak berak aurreikusitako ondorioetarako, uste osoa egin zuen haren heriotza bateragarria zela Bidasoa ibaiko urak ez diren beste ingurune likidoan murgiltzearekin, edo aldaketa makroskopikorik uzten ez duen itolarri bortitzeko metodo batekin. Beraz, probabilitate-eredu estandar egoki baten arabera, ustezko egoera bateragarria litzateke izaera bortitzeko gertakariekin, homizidioari dagokion etiologia mediko-legalarekin, auzitegiko medikuak emandako irizpenetik bertatik ondorioztatzen den bezala.

Familiak irratan Migel Mari ihes egin zuela entzun zuenean, bere ama Garbiñe Garate, bere arreba Ixiar eta bere anaia Aitor Donostiara joan ziren abokatu batekin elkarriketatzera, eta ondoren Intxaurrendoko kuartelera, non esan zieten ez zekitela ezer.

Garbiñe Garate bigarren aldiz itzuli zen kuartelera, galdetzeko non zegoen bere semea. Guardia zibil batek zera erantzun zion: “*Soaz haren bila puska galduen biltegiara*”.

Aztertutako beste kasu batzuetan bezala, Batzorde honek senideek jasotako tratu anker eta iraingarriaren larritasuna azpimarratu nahi du, baita agintariek nola erantzun zieten ere senideen alegazioei gertatutakoaren egia ezagutu nahi izan zuten aldiro.

Bai Zabalza familiarentzat, bai Mikelen gertukoentzat, justiziako betebeharra da erakunde publikoek neurri egokiak hartzea jasan zuen giza eskubideen urraketa ofizialki aitortua izan dadin. Aitorpen hori, 37 urte geroago iritsita ere, biktimek nahiz gizarte osoak egia jakiteko eta erreparazioa jasotzeko duten eskubidearen baliazte legitimo gisa egin behar da.

Kasu honen irizpen osoa, bere konplexutasun eta garrantziagatik, Legebiltzarrari eman zitzaion jada.

3.2. Bala-tiroen ondoriozko heriotzak

Atal honetan sartzen da 1982ko urrian N-1 (Madril-Irun) errepidearen bazterbidean, goizaldean, Lasarte parean, gidatzen ari zen ibilgailua geldiarazi zuen herritar baten kasua, “bidetarte zuzen batean, behar beste argizatuta eta norabide bakoitzean bi bide zituena”, eta autotik jaitsi zen txiza egiteko eta, bide batez, ibilgailuaren aurreko haizetakoa garbitzeko. Guardia Zibilaren 543 Komandantziako *Grupo Antiterrorista Rural* deituriko taldeko guardia batek (GAR), bertatik patruilatzen ari zena, hainbatetan tiro egin zuen haren aurka. Guardiak “*guztira zazpi tiro egin zizkion ibilgailuari, tiroz tiro*”, eta Cetmearen munizioa agortu ondoren, tiro batzuk gehiago egin zituen pistolaz. Hala dago jasota Donostiako Probintzia Auzitegiaren epaian, zeinak sei urte eta egun bateko espetxe-zigorra ezarri baitzion institutu armatuko kide horri, giza hilketa delitua egiteagatik.

Batzordearen irizpenaren arabera, kasu honetan, polizia-indarraren neurritz kanpoko ekintza gertatu zen, heriotza eragin zuena, eta gertaerak izan ziren garaiko Estatuaren jarduteko patroï bati erantzuten ziona. Poliziaren jarduera eta hilgarri gerta zitekeen indarraren erabilera ez zeuden zurututa inguruabarren argitan, eta GEEHren hitzetan ez zen “guztiz beharrezkoa”. Hilgarritasun txikiagoko beste aukera batzuk baliatu behar ziren eta, horrenbestez, ekintza guztiz neurrigabea izateak bizitzeko eskubidearen urraketa dakar bere funtsezko neurrian.

Gertakariak jazo ziren gauean bertan, Guardia Zibileko agenteak biktimaren etxera joan ziren goizaldean, “egiaztapenak egiteko” (ohiko araketa egiteko), familiari gertatutakoaren larritasunaren berri eman gabe. Ez zuten ezer aurkitu. Hil eta berehala eta urte batzuk geroago, 1985ean guardia zibila hiltzeagatik kondenatu zuen epaiketak iraun bitartean eta ondoren, familiak mehatxu-deiak jaso zituen. Alargunak presioak ere jasan behar izan zituen, indultua baliatu ahal izateko kondenatuari barkamena ematea xede zutenak.

12/2016 Legeak, bere ezartze-eremuaren barruan, berariaz aipatzen ditu giza eskubideen urraketaren ondorioz bizitzari eragin dioten balizkoak, kasu honetan gertatu zen bezala neurrigabeko polizia-jarduketa baten ondorioz, non, gainera, erantsi behar zaion guardia zibilen luzamendu arduragabea medikuaren laguntza eskatzeko garaian.

Batzordeak, lege honen babesean, proposatzen du pertsona hori, bizitzeko eskubidearen eta osotasun fisiko, psikiko eta morala izateko eskubidearen urraketa agerikoaren biktimatzat aitortzea eta, hala badagokio, dagozkion ordaintza-neurriak aitortzea.

- Aztertutako beste kasu batean, Gasteizko ostalaritza-lokal ezagun baten jabeak bizitza galdu zuen polizia baten eskuz, zeina Gasteizen egoitza zuen 66. banderaren 2. konpainia mugikorrek kidea baitzen.

Polizia biktimaren tabernara iritsi zen 1979ko abuztuaren 25eko 6:30ak aldera, eta edari alkoholduen eraginpean zegoen. Whisky bat eskatu zuen eta, bi bezerorekin izandako eztabaidaren ondorioz, guztiak lokaletik bota zituzten. Agenteak jardundegitik alde egin zuen eta, geroago, taxiz itzuli zen, bere arauzko arma bilatzera joan ondoren. Bi tiro egin zituen eta tabernako jabea eta bezero bat hil zituen.

Gasteizko Probintzia Auzitegiak hogeitau urte eta egun bateko espetxe-zigorra eta erabateko gaitasungabetzea ezarri zizkion tiroen egileari, erailketa-delituagatik. Ondoren, epaiaren aurka kasazio-errekurtoa jarri zen Auzitegi Gorenaren aurrean, eta hark Estatu absolbitu zuen erantzule zibil ordezkatzaille gisa, uste zuelako erantzukizun hori delituaren egilearena zela soil-soilik, zerbitzutik kanpo zegoelako.

Jardundegiaren jabea hiltzearen ondorioz, haren emazteak eta seme nagusiak tratamendu psikiatrikoa jaso zuten urteetan, bai osasun publikoan, bai erietxe pribatuetan, eta alargunak inolako laguntzarik gabe aurre egin behar izan zien tratamendu horien gastu itzelei. Inork ez zien barkamenik eskatu.

12/2016 Legeak berariaz aipatzen ditu, bere ezartze-eremuaren barruan, giza eskubideen urraketaren ondorioz bizitza erasan izan duten kasuak. Biktimaren heriotza berehala gertatu zen, poliziak ustekabearen egindako tiroen ondorioz. Emazteak eta bi seme-alabek doluaren eta gertaeren zentzugabekeriaren eragin traumatikoa jasan zuten, eta beren bizi-egitasmoa zapuztuta ikusi zuten tragediaren ondorioz.

Gertaerak berritzeko eginbidean, biktimagileak alegatu zuen “Iparreko sindromearen” eragina zuela eta “estutasun handia ezinbestez bere lanpostua Euskal Herrian behar zuelako, berak nahi ez zuen”.

3.3. Exekuzio arbitrarioarekin edo epailetzaz kanpokoarekin bateragarriak diren heriotzak

Batzordeak lehen aldiz irizpena eman du exekuzio arbitrarioarekin edo epailetzaz kanpokoarekin bateragarriak diren egitate batzuei buruz: ETAko bi kide hiltzea Lekeitioko Tendería kaleko pisu batean, Guardia Zibilaren tiroen ondorioz. Gertakariak bateragarriak dira 12/2016 Legeko bigarren artikuluan giza eskubideen urraketatzat jotzen denarekin, motibazio politikoa xede zuten jarduerak egiteko testuinguruan, funtzionario publikoek gehiegizko indarra erabiltzeak bi pertsonaren heriotza eragin baitzuen.

1972ko irailaren 2ko goizeko lehen orduetatik, Guardia Zibilak 40 lagun ingururekin inguratu zuen eraikina. Batzordeak lekukoek lekukotasunak bildu zituen, eta, horien arabera, hildakoetako batek tiro bat jaso zuen bete-betean balkoiaren atea ireki zenean. Besteak, kidea hiltzerian zegoela ikusita mediku bat eskatu zuen oihuka, eta bere burua emateko prest agertu zen, leihotik armak botata. Hala ere, etxebizitzako atean zehar guardia zibil batzuekin hitz egiten ari zela, bere bizitzari amaiera eman zioten metraileta-tiro jasak entzun zituzten.

Juan Bengoetxeak, gorpuk aztertu zituzten bi medikuetako batek, 2021eko apirilaren 26an Batzordearekin izandako elkarrizketan adierazi zuen bi lagunetako lehenak zuen balaren marka oso zehatza zela, frankotiratzaile batek egingo zukeena bezala. Beste lagunaren gorpuk 20 bala-zulo baino gehiago zuen gerrialdean eta bizkarrean, eta irteera gorputzaren aurreko aldean. Sarrerako zulo guztiak gorputzaren atzeal-

dean zeuden, eta alboetan edo aurrealdean ez zegoen sarrerako zulorik. Doktoreak azaldu zuenez, egoera hori ez dator bat liskar egoera batekin.

Guardia Zibilak une oro kontrolatu zuen etxebizitzarako sarbidea eta ez dago jasota han epailerik ibili zenik. Ordu batzuk geroago, Institutu armatuak medikuak deitu eta gorpuak ikuskatzeko eskatu zienean, gorpuak manipulatu egon zitezkeela ikusi zuten. Bi gazteak hil zirenetik medikuak iritsi ziren arte hainbat ordu igaro zen, eta denbora horretan, Bengoetxea doktorearen arabera, Guardia Zibilak etxebizitza garbitu zuen. Ez zuten jaurtigairik aurkitu, eta balek jotako pareta-zatiak karrakatuta zeudela konturatu ziren.

Bi gorpuak lurperatu zituzten, eta familiek ezin izan zituzten ikusi edo identifikatu. Agintari bakar bat ere ez zen harremanetan jarri senideekin heriotzen berri ofizialki emateko.

Poliziak eta beste segurtasun-kidego batzuek indarra eta su-armak erabiltzeari buruzko giza eskubideen gaineko nazioarteko arauak ezartzen dutenez, hiltzeko asmoz tiro egitea bizitza babesteko azken baliabide gisa egiten denean bakarrik da zilegi, hau da, norberaren defentsarako edo beste pertsona batzuk hiltzeko edo lesio larriak jasateko zorian berehalako mehatxu batetik babesteko egiten denean; bizitzarako mehatxu gaitza den delitu oso larria egitea sailhesteko; edo mota horretako arriskurik sor dezakeen pertsona atxilotzeko agintariei aurre egiten dienean, ihes egin dezan eragozteko eta bakar-bakarrik hain muturreko ez diren neurriak nahikoa ez direnean helburu horiek lortzeko.

Legea betearazteko ardura duten erakunde guztiek, indarra erabiltzen dutenean, premia- eta proportzionaltasun-printzipioei jarraitu behar diete uneoro. Ahal den guztia egin behar da pertsona harrapatzeko, hil beharrean, eta indar hilgarria ez da inola ere erabili behar atzematearen alternatiba gisa. Suzko arma bat erabiltzen dela ulertuko da harekin tiro egin edo apuntatzen denean, eta ez arma aldean eramate hutsagatik.

Minnesotako protokoloaren arabera, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak exekuzio arbitrarioaren edo epailetzaz kanpoko exekuzioaren izendapena erabiltzen du legea betearazteko ardura duten funtzionarioek indarra erabiltzearen ondoriozko heriotza-kasuetarako, baldin eta erabilera hori ez badator bat beharrian, arrazionaltasun eta proportzionaltasun irizpideekin. Esku artean darabilgun gertakari honetan, Batzordearen iritziz, Estatuaren agenteen jarduerak ez zituen bete beharrian eta proportzionaltasun irizpideak, guztiz kontrara baizik, neurrigabetzat eta gehiegizkotzat iritzi behar da. Guardia Zibilak pisuan zeuden bi pertsonak atxilo zitzakeen, baina ez zuen halakorik egin.

Gertaera horiek bateragarriak dira 12/2016 Legearen bigarren artikuluan giza eskubideen urraketatzat jotzen denarekin motibazio politikoko helburuak dituzten jarduketan testuinguruan, non funtzionario publikoek gehiegizko indarra erabiltzeak J.B.M. eta M.M.M.ren exekuzio arbitrariotzat edo epailetzaz kanpokotzat kalifikatutako hilketak eragin baitzituen. Era berean, legearen ezartze-eremuaren barruan egindako urraketatzat jotzen dira, babesik eza adierazi dezaketen pertsonen gain izandako gertakariak, hain zuzen ere ikertu ez izanagatik lege honen xede diren giza-eskubideen urraketengatik gertakari horiek direla-eta aurkeztu diren salaketak.

Hurrengo urteetan, bi hildakoen senideak atxilotu, torturatu eta espetxeratu zituzten. Estatu frankistaren errepresioak gertatutakoaren egia ikertzea eragotzi zuen. Kasu horrek erakusten du, gainera, Estatuaren segurtasun-kidegoek inolako zigorren beldurrik gabe jarduten zutela.

3.4. Talde parapolizialaren atentatuan gertatutako heriotzak.

Batzorde horren aurrean, 1978an Donibane Lohizunean eraildako emakume baten alabetako bat eta biloba agertu ziren; emakumea bere ibilgailu barruan zegoen ETako kide ospetsu izandako bere senarraren ondoan. Hilketa hori *Triple A* talde parapolizialak hartu zuen bere gain. 70eko hamarkadaren amaieran, sigla horien pean guztira zortzi hilketa hartu zituzten bere gain. Beste sigla batzuk ere erabili ziren, hala nola BVE, ATE edo GANE, 43 hilketa aldarrikatzeko.

1978ko uztailaren 2an, gauez, senar-emazteak, bere ardurapeko jatetxea itxi ondoren, prestatzen ari ziren jaiak ospatzen zituen Irungo herrira (Gipuzkoa) autoz inguratzen. Emakumea ibilgailua martxan jartzera zihoala, morroi bat Parisko matrikula zuen Peugeot 604 markako auto berde batetik jaitsi eta ibilgailu barrualdera metraileta-tiro jaso batzuk jaurti zituen. Emakumea berehala hil zen, gorputzean 16 bala-tiro jaso zituelako, eta senarra larri zaurituta geratu zen, 11 balek jota.

12/2016 Legeak berariaz aipatzen ditu, bere ezartze-eremuaren barruan, giza eskubideen urraketaren ondorioz bizitza erasan duten kasuak, motibazio politikoko helburuak dituzten jarduketan testuinguru jakinetan gertaturikoak, *baldin eta haietan parte hartu ahal izan balute funtzionario publikoek hala beren eginkizunetan nola beren eginkizunetatik kanpo; edota partikularrek taldean zihardutenak edo era isolatuan, barka eta kontrolik gabe.*

Era berean, lege horren ezartze-eremuan gertatutako giza eskubideen urraketatzat hartuko dira *babesik eza* zuri dezaketen pertsonen kasuak, legeak aipatzen dituen giza eskubideen urraketengatik aurkeztutako salaketak ikertu ez izanagatik babesik eza egiaztatzen duen eta zuzenbidean onarturiko edozein frogabideren bidez.

Horri dagokionez, familia babesik gabe eta bertan behera utzia sentitzen da gertaerei buruz zerbait gehiago jakiteko egin zituzten ahalegin guztiek porrot egin ondoren. Inongo erakunde ofizial bakar bat ere ez zen haiekin harremanetan jarri informazioa emateko. Polizia-ikerketa urria eta eskasa izan zen, eta, horrez gain, Paueko salaketa-ganberak erabaki zuen salatu nagusia aske uztea -nahiz eta gero hura atxilotzea eskatu-, gertakariak argitzea eragotzi zuen eta zigorrik gabe geratzeko erraztasunak eman zituen.

3.5. Balaz zauritutako pertsonak

Eskuin muturreko taldeek edo talde parapolizialek egindako lau kasu sartzen ditugu atal honetan: *Fuerza Nueva* eta *Guerrilleros de Cristo Rey* taldeekin loturiko lagunek egindakoak alde batetik, eta, bestetik, *Triple A* eta *Antiterrorismo ETA (ATE)* erakundeek egindakoak.

- Horietako lehena 16 urteko gazte batena da, Donostiako kaleetan martxan zegoen ibilgailu batetik tirokatu zutena, Blas Piñar buru zuen *Fuerza Nueva* eskuin muturreko alderdiaren mitin bat zela-eta. Egun horretan, mitina Anoeta frontoian egin ondoren, gaztea lagun batzuen ondoan zegoen Madril hiribidean, istiluak ikusten, eta une horretan tiro bat jaso zuen eskuineko oinean.

Biktimari hainbat aldiz egin zitzaion galdeketa artatu zuten osasun-etxean bertan, eta su-armak zeramatzen pertsona batzuk atxilotu zituzten arren, ez dago jasota alegatutako urraketan ikerketa egoki edo eraginkorrik. Ildo horretan, ez dago jasota erauzitako balari buruzko ikerketa ofizialik, ezta egun horretan bertan konfiskatutako armaren batekin loturarik bazuen ala ez argi zezakeenik ere. Hala, gertakari horietan, gainera, Estatuaren erantzukizuna identifikatu da eta, ondoriozko erreparazioa eman

beharra berme-betebeharretik sortzen diren eginbehar nagusietako bat urratzeagatik; alegia, baliabide erabilgarria eskaintzea eta alegatutako eskubide urraketak behar bezala ikertzea.

Kasu honi dagokionez, garrantzitsua da azpimarratzea *ikerketa bat egiteko eskubidearen giltzarriak azkartasuna, zehaztasuna, independentzia eta alderdikierarik eza direla*, eta horiek –dauden agirien argitara– ez direla inondik inora agertzen gertakarien ondoren egindako eginbideetan. Giza eskubideen urraketa larriak egin edo pentsatu dituztenen zigorgabetasuna izanik biktimak gehien birbiktimizatzen dituzten arazoetakoa, argi eta garbi frogatuta geratu da –aurkezturiko gertakariak izan zirenetik igarotako denboran– badaudela zigorgabetasun hori eragin edo ahalbidetu duten auzibideko jarduerak eta ez-egiteak.

- 1976an, ATE talde parapolizialak balaz zauritu zituen Donibane Lohizunen familia bereko hiru kide: ama, 16 hilabeteko semea babesten saiatu zena, gutxienez sei balek jo zuten; aita, buruko larru-azalean arin zauritu zuten, eta aipatutako semea, zauri arinak jasan zituen buruan kristalek eta hainbat makatuk eraginda. Amak eta semeak Batzorde honetan aurkeztu zuten eskaera; aita, berriz, GALEk 1984an hil zuen.

Aurreko kasuan bezala, 12/2016 Legearen ondorioetarako, giza eskubideen urraketa-tzat hartzen dira partikularrek ere eragindakoak, baldin eta, giza eskubideen urraketaren ondorioz, pertsonen osotasun fisiko, psikiko, moral edo sexualari erasan baldin bazaio. Baita *babesik eza* zuri dezaketen lagunen kasuak ere, legeak aipatzen dituen giza eskubideen urraketengatik aurkeztutako salaketak ikertu ez direlako.

F.Z. harrapatu zuten sei bala-tiroek bere bizitza arrisku larrian jarri zuten. Eskatzaileari presazko ebakuntza egin zioten eta 17 egun eman zituen erietxean. Gaur egun ere, medikuek erauzi ezin izan zioten bala du gorputzean. Eraso aldez aurretik hausnartu zuten: su-armak erabili zituzten distantzia laburrera, eta behin eta berriz tiro egin zuten emakumearen, senarraren eta semearen aurka. Kasu honetan, ikerketa-eginbideak hasi baziren ere, ez zuten emaitzarik lortu, nahiz eta biktima erasotzailetako bat ezagutzeko gai izan zen.

- Hirugarren kasua Madrilen gertatu zen. Eskuin muturreko zenbait kidek tiro egin zioten “¡Viva Cristo Rey!” oihukatuz kalean barrena euskaraz abesten zihoan eta ikurriña jasota zeraman lagun talde bati, bi euskal kantariren kontzertu baten irteeran. Zangoan balaz zauritutako laguna 1978an Madrilen soldadutza egiten ari zen gaztea zen.

1978ko Konstituzioa onartu baino hilabete batzuk lehenago gertatu zen eraso, eskuin muturreko taldeek erregimen frankistarena ez zen ideologia zuten pertsonen aurka eraso egin eta izua pizteko ekintza bortitzak egiten zituzten testuinguru batean. Talde horiek zigortuak izateko inolako beldurrik gabe eta muturreko indarkeriaz jarduten zuten, eta maiz, ondorio kaltegarriak zituzten pertsonentzat, kasu honetan gertatu zen bezala.

Eskuin muturreko ekintza horien aurrean, pertsona askok babesik eza jasan behar izan zuten justizia bere auzian ez aritzeagatik. Zentzu horretan, 12/2016 Legearen 2.3 artikulua ezartze-eremuaren barruan jasotzen da pertsonak jasandako eskubideen urraketak behar bezala ez ikertzea, aipatutako kasuan gertatu den bezala. 12/2016 Legearen 2.5 artikulua eskatzen duen lurralde-lotura ere badago. Gertakariak Madrilen gertatu ziren arren (eskatzaileak soldadutza egiten zuen lekua), biktimak ohiko bizilekua Bizkaian zuen.

- Urte horretan bertan, Triple A taldeak Donibane Lohizumen ere atentatua aldarrikatu zuen (aurreko 4. puntuan aipatua), lanetik irten eta bere ibilgailuaren barruan zegoen senar-emazte batzuen aurka. Emakumea hil egin zen eta senarra, guztira hamaika balek jota, larri zaurituta geratu zen.

3.6. Gomazko pilotek zauritutako pertsonak

Batzordeak zauri larriak izan dituzten lau kasu ezagutu ditu, eta horien egilea Guardia Zibila, Polizia Armatua, Polizia Nazionalea eta Ertzaintza izan dira, hurrenez hurren.

1977ko maiatzaren 14an bi urte bete ziren Guardia Zibilak Iñaki Garai eta Blanca Saralegi Gernikako bizilagunak tiroz hil zituenetik. Urteurren hori zela-eta, herrian manifestaziorako deia egin zen, Guardia Zibilarekin istilu eta zalapartetan amaitu zena. Arratsalde horretan, 13 urteko neska nerabea bi lagunekin eta ahizpa gazteagoarekin batera irtena zen litxarrerriak erostera. Agente batek jaurtitako gomazko pilota batek garondoan jo zuen, konortea galarazi eta aurrerantz erori zen. Ondorioz, aurpegiak zuzenean jo zuen zoruaren kontra. Aurpegiko zauriak larriak izan ziren, eta Gernikako Gurutze Gorrira eraman zuten berehala. Handik, anbulantziaz, Basurtuko Erietxera (Bilbo). Garezur-aurpegiko traumatismoaren diagnostikoa egin zioten. Pertsona horrek gaur egun berean dirauten ondorioak dauzka.

Gertakaria gizarte asaldurako eta botere-gehiegikeriako testuinguru batean gertatu zen, non polizia neurririk gabe nabarmen jarduten baitzuen manifestazio baketsuen aurka, pertsonen borondatea menderatzeko asmoz. Kaleetako protestak gogor zapaltzen zituzten, istiluen aurkako materiala erabiliz, eta, beste batzuetan, su-armak, pertsonen kalte konponezinak eta lesio larriak eraginez.

Etxera zihoan adingabe baten aurka gomazko pilota bat jaurtitzea Guardia Zibilak indarra gehiegi erabiltzea da. Gainera, gomazko jaurtigaiak garondoan izan zuen talkak erakusten du biktima tiro egin zuen guardiari bizkarra emanda zegoela. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziak, 3. artikuluari buruzkoak, onartzen du premia- eta proportzionaltasun-printzipioek justifikatu ezin duten indarra erabiltzeak tortura eta tratu txar, anker eta apalgarrien debekua urra dezakeela. (Iribarren Pinillos Espainiaren aurka kasua, 2009ko urtarrilaren 8ko epaia).

Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 3. artikuluko jurisprudentziaren interpretazio-estandarrek eskatzen dutenaren arabera, familiaren parte hartzearekin eta azterketa publikoarekin ikerketa sakon, independente eta azkarrik ez egiteak berekin lekarke giza eskubideak urratzea tratu txarren debekuarekiko duten alderdi prozesalean. Ikerketa-falta hori eta horrek sortzen duen babesik eza larriagotu egiten dira, gaur egun ez baita posible dagozkion instantzia judizial edo militarretatik dagokion dokumentazioa lortzea.

- Bilbon, 1978ko uztailean, 16 urteko gazte bat bere etxera itzuli zen, klinikan amona bisitatu ondoren. Hareatzako zubira iristean, pasabidea eragozten zuen su-barrikada handia aurkitu zuen, eta kale-istiluak. Manifestarien eta poliziaren arteko liskarrak amaitu zirela iruditu zitzaionean, alboetako batetik zubirantz hurbildu zen, eta, barrikada gurutzatzera iritsi gabe, gomazko pilota baten kolpea jaso zuen aurpegian, motozikleta batetik bi agentek egindako karga baten ondorioz.

Konortea galdu gabe, DYako osasun-langileek artatu zuten eta Gurutzetako erietxera eraman zuten anbulantziaz. Ondorio fisikoak hauek izan ziren: ezkerreko begia erabat galtzea, orbainak aurpegiaren alde horretan, eta ezkerreko masaileko hezurra

hondoratzea, ezkerreko sudur-zuloan hipoaireztatzea eraginez. Ondorioek bere horretan diraute gaur egun ere.

12/2016 Legeak berariaz aipatzen ditu, giza eskubideen urraketaren ondorioz, biktimaren osotasun fisikoari eta psikologikoari erasan dioten gertakariak. Kasu honetan, aurpegian jasandako lesioak oso larriak izan ziren, eta horien ondorioek iraun egiten dute gaur egun eta erabat neurrigabea den polizia-ekintza baten ondorio dira, argi eta garbi garai hartako Estatuaren funtzionamendu-eredu bati erantzuten diona.

Pertsona askok, baita familia honek ere, erabateko babesik eza jasan zuten botere publikoek egindako gehiegikerien eta justiziaren ekintzarik ezaren aurrean. Ildo horretan, 12/2016 Legearen 2.3 artikulua ezartze-eremuan ere sartzen da pertsonak jasandako eskubideen urraketak behar bezala ikertu ez izana.

- 16 urte zituen, halaber, 1986an gomazko pilota baten tiroa begian jaso zuen gazteak. Polizia nazional batek jaurti zuen, 3 metro baino gutxiagoko tartean, eta begi globoa lehertu zion, begi zuloaren hormak hautsi, eta baita sudurra ere. Lesio oso larri horiek zirela eta, hurrengo urteetan hainbat ebakuntza kirurgiko egin behar izan zioten. Kalte fisikoaz gain, biktimak lesio psikikoak izan zituen; izan ere, horren guztiaren ondorioz, 9 urte zituenetik gazteak zekarren egoera psikologiko pattalak okerrera egin zuen, hots, adin hori zuela Gasteizen familiak ustiatzen zuen tabernan polizia batek bere aita hil baitzuen.

Aztertutako dokumentazioak berretsi egiten du istiluen aurkako poliziaren jardueraren batean gertatu zirela gertakariak, eskabide politikoko manifestazio baten aurrean, non gazteak ez baitzuen inolako parte-hartzerik izan. Polizia-ekintza horien plangintza balizko guztietan, manifestarien eta inguruan egon daitezkeen hirugarren pertsonen osotasun fisikoa babesteko eginbeharra bete behar da, arreta berezia jarriz indarraren erabilerak pertsona horiei zein modutan eragin diezaiekeen.

Protesta-testuinguruetan agenteen jarduketari buruzko kontrol-mekanismoak eta kontuak emateko mekanismoak ezarri beharrak berarekin dakartza adierazpen publiko baten esparruan gertatutako urraketa oro ikertzeko eta zigortzeko betebeharrak. Aitzitik, osotasun fisikoa bezalako eskubideak urratu direnean, behar bezalako arduraz eta arrazoizko epe baten barruan ikerketa zehatzik ez egitea bereziki larria da, adierazpen-askatasunerako eta bilerak egiteko eskubideen jardunean duen eraginagatik.

Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak berak azpimarratu duenez, indarraren erabilera ez-zilegiaren salaketa edo susmo arrazoizko oro modu eraginkor, inpartzial eta egokian ikertzeko betebeharra dago; hau da, *dolozko nahiz zabarkeriazko ekintza edo ez-egitea giza eskubideen urraketa izan daiteke*. Hala, lesioak edo kalteak gertatzen direnean, nahikoa informazio eman behar da jakiteko ea indarraren erabilera beharrezkoa eta proportzionatua izan zen, bai eta haren eraginkortasuna eta ondorioak ere.

- Beste kasu berriagoa, 1997ko urtarrilekoa, Gipuzkoako hiriburuko Antigua auzoan ertzain batek jaurtitako gomazko pilota batek jo zuenean begia galdu zuen gazte bati dagokiona da. Biktima jai-eremuko taberna batean zegoen, pilotaleku ireki bateko kontzertu bateko atsedendian. Antza denez, manifestazio bat egin zen ondoko kaleetan, baina lekukoaren arabera, ez zegoen kaputxadunik, ezta istilurik ere inguru horretan.

Kasu honetarako bereziki garrantzitsua da protestak egitearen testuinguruan pertsonen bizia eta osotasun fisikoa babesteko beharrezkoak diren bitarteko guztiak gauzatzeko betebeharra, *betiere pertsonen lesioak eragiteko aukera ahalik eta gehien*

murrizteko, gertakariak erregistratzeko eta dokumentatzeko protokoloekin, agenteen identifikazioa ziurtatzearen eta indarraren edozein erabilera jakinarazteko” Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordearen hitzen arabera (37. zkiko. Ohar Orokorra, 2020).

Horrela, Legearen bigarren artikuluko baldintzak betetzen ote diren baloratzeko, kontuan hartu da ez direla gertakari bakanak, hainbat urtetan hainbat herritan errepikatu ziren jarduerak baizik. Horrela, Jon Mirena Landak sinatu eta Eusko Jaurlaritzak 2008an argitaratutako “Giza Eskubideen urraketan biktimak motibazio politikoko indarkeriaren ondorioz” izeneko txostenean esaten zenez, “gomazko pilotak erabiltzea kezka-iturri da giza eskubideen erakundeentzat. Gomazko pilotek bote egiten dute hormetan, eta distantzia luzeak egiten dituzte kaleetan aurrera, zeinetan edozein manifestazio-deialditatik kanpoko jendea igarotzen baita. Tarte laburreko helburuetara tiro egitean distantzia luzeetara iristen den materialarekin, ezin dira pertsona guztien eskubideak bermatu. Amnesty Internationalek bere kezka adierazi zuen, jada, “Oinaze merkatariak” (2003) lanean, gomazko balak lehen baliabide gisa erabiltzeagatik, kalte handiagoak saihesteko beste saiakera batzuen amaiera gisa erabili ordez”.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 83/08 Epaian frogatutzat ematen da polizia-ekintzaren eta gomazko pilotak pertsona horren begian izan zuen eraginaren arteko kausazko lotura. Ondorioz, eragindako lesioengatik erreparazioa jasotzeko eskubidea aitortzen zaio. Epailearen erabaki bidez espediente honetan ezarritako egitateen kontakizun hori onartuz, hala ere, Balorazio Batzordea legez gaituta dago, aipatutako egitateak berera bilduz eta bere jardun-eremutik bertatik, polizia-jarduketa zehatza motibazio politikoko giza eskubideen urraketa izan ote daitekeen erabakitzeko. Ondorio horietarako, funtsezko osagaitzat hartu behar da lekukoek emandako lekukotasunak pilotakadak nola gertatu ziren baieztatzen duena: plazan, kaputxarik gabe eta istilurik gabe. Ordena publikoaren premiarik ezean, indar bidegabea -beharrezkoa ez dena- erabili zen, legezko edo bidezko edozein helbururekin inkongruentea, eta, beraz, guztiz neurrigabea.

Inguruabar horiek guztiak ikusita, Batzordeak uste du alferrikako eta neurriz kanpoko jarduketa gertatu zela, ondorio kaltegarriekin (Iribarren Pinillos vs. España 2009 kasua eta horrekin bat datorren doktrina), polizia-instantziek eta horien defentsa juridikoak ukatu zutena, nahiz eta ebazpen judizialak behin betiko baieztatu, azkenean behintzat, huts-hutsik egitezko kontsiderazio bezala bazen ere (kausazko lotura). Lege honen xede den eremutik, eta jasotako zantzu guztien argitan, probabilitate-estandar behar bestekoan, Batzordeak adierazi du, ebatzitakoari erantsiz, kausazko lotura hori giza eskubideen urraketaren zati dela, osotasun fisikoari erasaten diona, eta, beraz, kalte fisiko eta moralen erreparazioa jasotzeko eskubidea sortzen duela, bere garaian ebazpen judizial bidez sorturiko ordainak osatu behar dituena.

3.7. Tortura eta tratu txar larrien kasuak

Batzordeak jarduteko ereduak hautematen jarraitzen du erabilitako teknikek eta haien etiologia kriminalak eraginda: poltsa, bainuontzia, “ebakuntza-gela”, mota guztietako kolpeak eta tresna ezberdinekin, “ahatea”, “gurpila”, umiliazio etengabeak, biluzik jartzea barne, loa sistematikoki galaraztea, izu-ikarazko giroa sortzea inguruan, tratu txar larriak sendikoengana eta lagunengana zabaltzeko mehatxua, beste batzuen garrasiak, benetakoak ala grabatuak, entzunaraztea.

Lekukotasuna eman duten 28 pertsonen artetik, batzuk 3 eta 4 aldiz egon ziren atxilotuta eta nabarmendu behar da gutxienez 12 aldiz atxilotu zuten lagun bat ere bazela tartean: “azkenerako kontua galdu nuen”. Atxilotzeko eta torturatzeko leku aipaga-

rrienak Guardia Zibilaren Antiguako (6), Gernikako (3), La Salveko (4) eta Intxaurren-doko (1) kuartelak izan ziren, baita Indautxuko polizia-etxeak (7) eta Gipuzkoako Gobernua Zibila (7) ere.

3.7.1 Norberaren lau istorio

Lehen lekukotasunean, atxiloteta polizia-sarekada zabal baten baitan gertatu zen, eta bigarrean, biktimak berak kontatu du itaunketak “ankerkeria” hutsa zirela, eta ez zutela bilatzen gertakari buruz gehiago jakin nahia, ezta beste kide batzuen izenak ezagutu nahia; izan ere, ikurriña bat prestatu eta jartzeko ekintza zela-eta “polizian nik baino informazio gehiago zuen parte hartu zutenei buruz”. Biek ala biek elkarrekiko duten lotura Melitón Manzanasko da, berak zuzendu baitzuten tortura eta tratu txarren saioak, baita horietan parte hartu ere.

1961eko kasua

(...) itaunketan kolpe handia eman zioten eztarrian, eskuaren ertzaz, eta hitz egin ezin utzi zuten. Belarrondokoak eta kolpe lehorrak jaso zituen eztarrian eta aurpegi galdetzen zitzaionaren erantzuna ez zuela ezagutzen esaten zuen bakoitzean, bai eta kolpe ikaragarriak ere belarrian, atzetik emandakoak, entzumena kaltetu eta burezurrean burrunba ikaragarria sortu ziotenak. Begien aurrean oso argi-foku bizia jarri zioten, itsutzeraino. Polizia batzuen artean aldi bereko galdera azkarrak egiten zizkiotelarik, erantzutera behartzen zuten pentsatzeko astirik izan gabe kolpeak ematen zizkioten bitartean. *Brigada Politiko Social*-eko buru Melitón Manzanasek zuzendutako galdeketak.

Zakar tratatu zuten, eta umiliazioak eta irainak jaso zituen. Inguruabarrengatik zorabiatuta zegoela, lau poliziek, aldi berean, zigorrak jo zuten, indar handiz, berarengandik entzun nahi zutena esan zezan saiatzen baitziren. Halako batean, arropa kentzeko agindu zioten. Praxak erantzeari uko egiten zionez, polizia batek haren gainera jauzi egin eta bat-batean jaitsi zizkion. Hala, erdi biluzik eta umiliatuta, lurrean jarritako harritxo zorrotz-zorrotz eta ebakitzaila pila baten gainean belaunikarazi zuten. Harriak belaunetan iltzatzen zitzaizkion eta sufrimendu itzela eragiten zioten, are gehiago poliziek, borra bat eta erregela bat zeramatzatelarik, ukabilkadak eta ostikadak ematen zizkiotenean, oreka galdu eta eror zedin ahalegina eginez, eta horrek are sufrimendu handiagoa eragin eta ukaldi gehiago sortarazten zituen belaunetatik odol-jarioan zegoen atxilotuarentzat.

Irainen artean, polizia bat atxilotuaren sorbalden gainera eseri zen bera harrien gainean belauniko zegoen bitartean, eta, aldi berean, beste batek basatiki jo zuen. Atxilotua zutik jarri zen une batean, konortea galarazteraino eman zizkioten kolpeak eta bat-batean lurrera erori zen. Urarekin suspertu ondoren, aulki batean minutu batzuez esertzeko aukera eman zioten, poliziek mehatxu egin bitartean entzun nahi zutena baieztatzen ez bazien torturatzen jarraituko zutela. Gainera, ohartarazi zioten nahi zuten bezala joka zezaketela, erabateko inpunitatez. Haien nahiak betetzeari etengabe uko egiten zionez, egoera penagarrian egon arren, berriro jarri zuten harrien gainean, besoak gurutzean zituela, eta lehen azaldutako torturak errepikatu zituzten.

Hurrengo egunean, Melitón Manzanasek egin zion galdeketa. Kolpeak errepikatu ziren, erantzun ere egin ezin zituen galdera azkarrak, umiliazioak eta irainak. (...) Itaunketak etengabeak dira, ez zaio atseden hartzen uzten atxilotuari. Ziegak ez zuen koltxonetarik edo mantarik. Egun horretan, gazta-ogitarteko bat baino ez zitzaion eman, eguerdian. Tratu txarra etengabea da: argi bizia begietan, umiliazioak eta irainak, mehatxuak, harriak, kolpeak, borrak, ukabilkadak eta oina zapaltzeak...

bere bizitzarekin amaitzeko eskatu zien. Hurrengo goizean (...), ezertxo ere jan gabe, ia konorterik gabe zegoen. Buruan emandako kolpeek eragindako gorreriak galderak ulertzea eragozten zion, eta izugarri ahulduta zegoen jipoiengatik eta elikagai eta atsedeen faltagatik.

Itaunketetan parte hartu zuen polizia bat esku bat lotuta agertu zen, atxilotuari esanez: “hara zer abantaila lortzen ditugun zurekin! Eskumuturra dislokatu nuen!”

Martutenera eraman zuten, eta ubelduraz betetako bere egoeran eta ibili ezinik, bere ziegara beste preso batzuek eraman behar izan zuten. Espetxeko medikua ere harrituta geratu zen bere egoeragatik. 15 egunez inkomunikatuta egon ondoren, deklaratu egin zuen Eymar koronelaren aurrean, eta Madrilgo Probintzia espetxera eraman zuten. Posta-treneko bidaiak 22 ordu iraun zuen eta denbora horretan ez zitzaien elikagairik eman. “Egun batzuk geroago, Carabanchelgo espetxera eraman zuten, Madrilerara. Espetxeratu izanak hasieran sortu zidan lasaitasuna –erantsi du bere alargunak–, zapuztuta geratu zen egun gutxira jakin nuenean espetxetik atera zutela Madrilgo Puerta del Sol deituriko komisaria zentralera eramateko, ‘diligentziak betetzera’. Berriz ere, tratu txarrak eman zizkieten eta tortura handiagoen mehatxua egin; gauak gelazulo batean igaro zituen, doi-doi bere gorputza kabitzen zen bertan. Egun gutxiren buruan Carabanchelera eraman zuten herrero.”

1968ko kasua

Bi urte zituenean izan zuen poliomieltisak eskuineko hankan herrena utzi zion. Eusko Gaztediko (EGI) militantea, 19 urte zituela, 1968ko urtarrilaren 18an atxilotu zuten anaiarekin eta beste kide batekin batera. Egun hartan, bera eta bere kideak ekintza bat prestatzen ari ziren San Sebastian jaiegunerako: suzirik bultzatutako ikurrina bat aineratu nahi zuten Donostiako alde zaharrean. (...)

Amarako Gobernu Zibilera iritsi (...) eta handik gutxira, galdeketak hasi ziren Melitón Manzanasen gidaritzapean. Egurrezko aulki batean eseri zuten, eskuak eskuburdinez lotuta zituela atzealdean. Babesgabetasun-egoera horretan, eskuz kolpatu zuten buruan, hankan eta sabelean; aulki eta guzti, lurrera erortzeraino. Gogor kolpatu zuten aurretik, atzetik eta alboetatik. Umiliazioak etengabe jasan zituen Manzanasen ahotik: manipulatu, desgraziatu, herrena... bertan zeuden poliziek barre egiten zuten bitartean. Bereziki, poliomieltisak jotako zangoan behin eta berriz ostikadaz kolpatu zuten, beltza uzteraino. Etengabe iraindu zuten; batez ere, bere herrena aipatuz. “Poliomieltisa izan nuelako, isekak eta umiliazioak ikaragarriak izan ziren”.

Eskuburdinak odolaren zirkulazioa eteteraino estutu zizkieten eta irrigaziorik gabe utzi. Gero, ur hotzetan sartu zizkieten lababoan. Horrek deskarga elektriko baten moduko mina eragiten zion. Sufrikario hori behin baino gehiagotan egin zioten egun horietan. M.I. dio galdeketaren beharrik ez zegoela; Poliziak ia berak baino informazio gehiago zuelako parte hartu zuen ekintzei buruzkoa: “Eta gero esaten zituzten gauzak... joe!, hauek gutaz, gu baino gehiago zekiten! Ez zuten inongo beharrik guri horrelako tratua emateko, bazezkiten dena: non genbiltzan, ze nolako jendea zegoen gure gainean...”.

Galdeketa baten eta bestearen artean, beheko solairuko ziegara jaisten zuten. Galdeketak goiko pisuan egiten zirenez, atxilotuak gorako eta beheanzko bidea egin behar izan zuen maiz. Oinetakoen sokarik gabe, bere herrena zela eta, zailtasun handia izan zuen zapata askatuekin eskaileretan gora eta behera ibiltzeko.

Ziegan, hotz handia pasatu zuen. Urtarrila zen eta familiak eramandako arropa edo janaria ez zuten sartzen utzi. Ura besterik ez zuen hartu. Ez zioten lo egiten uzten.

Nekearen ondorioz begiak itxi ezker, irratiko bolumena igotzen zuten loa eragozteko. Komunera joateko zailtasunak izan zituen. Eskatzen bazuen, “*ah, pues méate ahí*” erantzuna jasotzen zuen.

Atxilotu eta hiru egunetara, epailearen aurrera eraman zuten. (...) Deklaratu ondoren, Martuteneko espetxera eraman zuten, legez kanpoko elkartzera eta legez kanpoko propaganda delituen salaketapean. Kartzelan, inkomunikazio epea pasa eta egun batzuetara, bere hanka beltzaren egoera erakutsi nahi izan zionean espetxeko praktikanteari, erantzun hau jaso zuen: “Niri ez gero ezer esan. Hori guztia gero Epaitegian azalduko duzue...”.

1978ko kasua

Hurrengo gertakariak erakusten duenez, 20 urteko gazte batek gehiegikeria eta babesik eza jasan behar izan zituen, “inolako aukerarik gabe justiziarik egiteko ordena publikoko indarrek bere jardunean zerabiltzaten gehiegikeriei eta basakeriari aurre egiteko”, Batzorde honek bere irizpenean adierazi duenez.

Ikasle gazte batek topo egiten du kalean manifestazio baten errepresioan guardia zibilengandik ihesi zetozen gazte batzuekin. Gazteak bi manifestarirekin talka egin zuen izkina batean eta lurrera erori zen. Guardia zibilek atxilotu egin zuten buruan pistola bat jarri ostean:

“Polizia-ibilgailuaren barruan bazeuden beste gazte batzuk ere eta guztiak Portugalera Guardia Zibilaren kuartelera eraman zituzten. Kuartelera iristean, nortasun-agiria eskatu zieten, eta gela batean jarri zituzten itxaroten. Gero, banan-banan, beste gela batera pasarazi zituzten, non guardia zibil batzuk zeuden hiribilean jarrita. 20 urteko gazteak jipoi bortitza jaso zuen guardia zibilengandik, ukabilez kolpeak eta ostikadak nonahitik emanez. Ondoren, inolako galderarik egin gabe, etxera joan zitekeela esan zioten. Kalera irteteko ibili behar zuen korridorean Guardia Zibileko agente gehiago topatzen zituen, eta, haien parean igaro ahala, jipoitu egin zuten. Astebete geroago, etxean pelikula bat ikusten ari zela, ondoezik sentitu zen eta komunera joan zen; orduan ohartu zen odoljarria zuela eta, zutitserakoan, konortea galdu zuen. Premiaturik, Gurutzetako erietxera eraman zuten eta iritsi bezain laster ebakuntza egin zioten heste meharreko –duodenoko– ultzera artatzeko. Hilabete eman zuen erietxean. Ez zuen salaketarik jarri”.

1988ko kasua

Hamar urte geroago, Batzordetik igaro diren lekukotza harrigarrietakoa gertatu zen eta halaxe jaso du peritu-txostenak, jasandako torturaren eragina baloratzen baitu, “hondamendiaren ondorengo nortasunaren eraldaketa iraunkor gisa”. Behar-beharrezkoak diren osagai pertsonalak baino ez ditugu azalduko.

Guardia Zibilak atxilotu zuen, emaztearen eta bi urteko alabaren aurrean. Krudelkeria handiko tratu txarrak eta akusazioa jaso zituen, baina kargurik gabe atera zen aske. Egindako elkarrizketan agerian geratu zen atxiloketan jasandako sufrimenduaren larritasuna; izan ere, gertakariak gogoratu eta egoera biziberritu ahala, larritasun itzela agertu zitzaion eta elkarrizketa hainbat aldiz gelditu behar izan zuten.

Honela definitzen da gertaera traumatiko bat: pertsona baten osotasun fisiko edo psikologikorako mehatxu larria den muturreko giza bizipena, pertsona horrek beldurrez, etsipenez edo izu-ikaraz erantzun diona. Gisa honetako gertakaria bizi ondoren, batzuetan bizirik atera denak kontrola ezin dituen erreakzio edo sintoma batzuk ager daitezke eta sufrimendu psikologiko sakona eragin diezaioke.

Gertaera traumatiko baten ondorioak ez daude lotuta soilik estres post-traumatikoaren nahasmendua agertzearekin, beste batzuk ere gerta daitezke: alienazio-sentsazioa, gizakiaren ontasunaren oinarritzko ustea suntsitzea, zeinak bizitzeko lotura afektiboak ezartzea ahalbidetzen duen; nor bere buruari buruzko oinarritzko sinemenak zalantzan jartzea, isolamendua, anestesia emozionala eta afektiboa edo segurtasunik eza ontologikoa. Biktima horrek aurkeztutako txosten psikologiko eta psikiatrikoek ondorio horietako asko erakusten dituzte, eta jasotako torturek eragindako trauma erakusten dute.

3.7.2. Batzordearen aurrean gehien azalduko tortura-motak

“Harrien tortura”: pertsona atxilotua, gerritik behera biluzik, galtzontzilotan edo kulerotan, belauniko jartzen dute hartxintzarrez edo harri txikiz betetako xafla baten gainean, eskuak bizkarrari lotuta dituela. Poliziek oinetan kolpeak ematen zizkieten aurrera egin zezaten, eta, hala, harriak iltzatzen zituzten belaunetan haragi bizitan jarritz. “Ezin nuen jasan, irrista egin eta erori egiten nintzen; urradura izugarriak egin zizkidan, belaunetako markek luzaroan iraun zuten, oraindik ikus daitezke”.

“Ahatea” eta **“igela”**. Bi aldaera horiek elkarrekiko ezaugarria zera dute: pertsona koriko jarrira ibilarazten dute, bietako batean jauzika.

“Mahai luze baten inguruan bueltak ematera behartzen ninduten, eskuak belauenen atzean eskuburdinez lotuta, eta hainbat agenteren artean kolpeak ematen zizkidaten ‘ahatearena’ eginez euren aurretik nembilen bitartean.”

“Amaigabea egin zitzaion. *‘Eta itzuli bat gehiago, eta beste kolpea, eta beste bat, eta beste bat...’* Iraintzen ninduten. Ia ez nintzen gauza ibiltzeko oinak gero eta puztuago nituelako kolpeengatik eta saihetsezurrak minberatuta neuzkan.”

“Falanga”: eskuak bizkarrean eskuburdinez lotuta zituela, pertsona atxilotuari burdinazko barra bat pasatzen zioten atzetik eta bi armairutan bermatutako barran zintzilikatzen zuten. Lurra ia ukitu ezinik, oin-puntetan, urdailean, bizkarrean edo oinetan jotzen zuten.

“Haga edo zezen-buztana”: aurrekoaren modalitatetzat har daiteke. Atxilotuak, oinak biluzik dituela, barra batetik zintzilik jartzen zuten edo mahai edo koltxoneta baten gainean etzanda eta oinazpiak kolpatzen zizkieten soka bikoitz batez, zaharo luze eta kizkurtu batez, edo larruz jantziriko borra metaliko batez, agenteek “zezen-buztana” esaten ziotena.

Hormaren kontra: lehenengo modalitatean, “atxilotua tente egonarazten zuten euskarri bakarra izanik esku bakoitzeko bost hatzak hormaren gainean”. Gehiago jasan ezinik erortzen zenean, kolpeka jarrera horretan jarraitzera behartzen zuten. Bigarrena, paretari begira jartzea zen, zutik, mugitu ezinik eta komunera joateko aukerarik gabe, lo egin gabe... ordutan. “Ahuldu edo erortzen zen bezain laster, jo egiten zuten. Erori egiten zen, berriz ere altzarazten zuten eta berriro ere erori”. Hirugarren aldaera zen burua hormaren kontra jartzea, eskuak bizkarrean eta zangoak irekita eta ondo zabalik, eta posizio horri eutsi behar zioten. Pixkanaka irrist eginez lurrera erortzean, jo egiten zuten eta hasierako jarreran ipintzera behartzen zuten.

“Ebakuntza-gela”: “Mahai gainean etzan zuten gerritik gorantz, gorputz erdia utziz mahaitik zintzilik, eta besoak gurutzean jarrita. Polizietako batek oinei eutsi zien, eta, geroago, oinen gainean eseri zen, mugi ez zedin. “Kolpe ugari eman zidaten, mailukadak balira bezala, sabel gainean, zeina ubelduta geratu baitzitzaidan”.

“**Poltsa**”: Plastikozko poltsa jartzen zieten burutik behera, lepoari lotuta eta ondo estu, eta horrek ‘itolarri jasanezina sortzen zuten’, galderak egiten zituzten bitartean. “Poltsari hozka egiten saiatzen ziren, baina beste batzuk jartzen zizkieten gainetik”.

“**Bainuontzia**”: biluztu eta tapaki biribildu batean biltzen zuten. Gero burua harraska, balde edo bainuontzi batean murgiltzen zioten ur zikinarekin (okadak, gorozkiak, pi-xak, txistuak...), eta uretatik atera edo uretan sartzen zioten, esatea nahi zutena erantzun ahala.

“**Elektrodoak**”. Bilbon atxilotutako pertsona batek azaldu zuen mehatxu egiten ziotela “bere sexu-alderdietan elektraindar-deskargak jartzearekin”.

“**Biluztea eta umiliatzea**”. “Behin eta berriro jartzen ninduten larrugorritan”.

“**Tortura psikologikoa**”. Biktimitako batzuek indarkeria psikikoa salatu zuten, larritasun psikologiko eta moraleko testuinguruen eraginpean jarri zituztelako, nahita, haien nortasuna deuseztatu eta desmoralizatzen saiatzeko (isekak, umiliazioak, janik gabe uztea, argia etengabe, senideen aurkako mehatxuak...). Horietako batzuek tratamendua behar izango zuketean aske irten zirenean, baina ez zuten jaso, eta gaur egun ere herrestan daramate larritasun psikiko eta moral hura, Batzorde honek egiaztatu duenez. Beste batzuek bai izan zuten tratamendua (eta izaten jarraitzen dute). Aurkeztutako txosten psikologiko eta psikiatrikoetako batean honako hau irakur daiteke:

“Atxiloketa gertatu zenetik isolatu egin zen. Ez zuen inorekin hitz egiten, ez zen irtetean, erabat banandu da lagunengandik eta bere ohiko harreman-mundutik (...). Hasieran adierazitako antsietatea ez ezik, nerbioetako sakoneko depresioa ere antzematen zaio, eta horren ageriko antsietatea sintoma bat baino ez da, depresio-koadro orokor baten barruan. Bizitako egoerak eragindako jazarpen-fantasiak larriagotu egiten dute sintoma-sorta hori”.

Atxilotutako pertsona gehienek ez zuten mediku edo abokatuen bisitarik izan. Arropa ezin izan zuten aldatu, ezta dutxatu ere (kasuren batean 23 egunez).

3.7.3. Hil nahi izatea. Errepikatzen den ezaugarri bat

Torturatutako pertsona askoren lekukotzetan errepikatzen den sentimendua da, une batean edo bestean, egoera haietan hil nahi izatea: “Hil nazazue! Nahiago dut hil horrekin jarraitu baino!” Haietako batzuk beren buruaz beste egiten saiatu ziren, sufritzen ez jarraitzeko; adibidez, 18 urteko emakume bat, Donostiako Gobernu Zibilaren barruko patio batera ematen zuen leiho ireki batetik bere burua bota zuena. Une batzuk lehenago ziegatik atera zuten laugarren galdeketa egitera eramateko, eta berak komunera joateko baimena eskatu zuen:

“Leioha parez pare irekita zegoen, leiho-koskara igo zen, pauso bat luzatu eta bere burua erortzen utzi zuen”.

Gaztea ez zen hil, baina zauri larriak izan zituen eta ondorioak.

Urte horretan bertan, leiho batetik “erori ziren” atxiloturiko lagunen beste kasu batzuk ere argitaratu ziren. Batzuk egia ziren, baina beste batzuk ez. Hona hemen 24 urteko gazte baten lekukotasuna:

“Poliziak zabaldu zuen kontua izan zen jada atxiloketaren unean bertan etxeo balkoitik salto egiten saiatu nintzela eta, ondoren, Gobernu Zibilean galdekatzen ari zitzaizkidanean, korrika atera nintzela eta eskaileretan behera erori nintzela. Areago, Radio Parisek berak ere eman zuen ni hil izanaren berri”. Jasotako tor-

turak zirela-eta Probintziaren erietxera eraman behar izan zuten, eta 71 egunez luzatu zen egonaldia. Iritsi zenean bere egoera hain zen larria ezen Ospitaleko eta Erresidentziko osasun-langileek geldialdia deitu baitzuten protesta egiteko”.

Horri buruzko beste lekukotza batzuk:

“Tratu txarrak etengabeak ziren: argi bizia begietan, umiliazioak eta irainak, mehatxuak, harriak, kolpeak, zartakoak, ukabilkadak eta oinak zapaltzea... Biktimak bere bizitzarekin amaitzeko eskatu zien, eta erantzun zioten: “Zure kausaren martiria izan nahi duzu, ezta? Ez gizona ez. Ez dugu martiririk sortzeko inolako asmorik!”

“Jada ezinaren mugan, eskuburdinez lotuta zegoen ziegakide bati eskatu zion eusteko euren artean joan-etorrian zebilen poliziari eta arma kenduko ziola bere buruzko beste egin ahal izateko. Hark konbentzitu ahal izan zuen bere asmoa bertan behera utz zezan, esanez, eskura zegoen errebolber hori tranpa izan zitekeela”.

3.7.4. Tortura genero-ikuspegitik

Nazioarteko instantziek gomendatzen duten bezala, Balorazio Batzordeak lan handia egin du genero-ikuspegia txertatzeko egindako giza eskubideen ikerketetan, bai eta dagozkion espedienteen izapideetan ere, gizarte-testuinguru jakin batzuetan gertatzen diren diskriminazioak eta berariazko genero-indarkeria identifikatzearen analisi bat egin ahal izateko.

Genero-azterketak giza eskubideen urraketak sortzen dituen eragin bereiziaz azaldu behar ditu, bereziki emakumeengan eta genero eta sexu-identitate aniztasuna duten pertsonengan, horretarako gizartean emakumeen eta gizonen artean eraikitako botere-harreman desberdinak txertatuz, eta, beraz, txertatuz ere bai eskubide horien urraketak emakumeengan duen eragin bereizia.

Horrela, Batzordeak egindako lanaldian zehar egiaztatu ahal izan denez, emakumeek, tortura edo bestelako tratu krudel eta ankerrak jasaten dituztenean, sexu-indarkeriako ekintza jakin batzuk jasateko arrisku berariazkoa dute, baita beren generoagatik, sexu-joeragatik edo genero-nortasunagatik indarkeria mota jakin batzuk jasateko arriskua ere.

Era berean, Batzordearen lanak baieztatzen du poliziaren zaintzapean dauden emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, ohikoak izan direla gehiegikeria jokabideak emakume izatearekin zerikusia dutenak: bortxaketa-mehatxuak, ukitzeak, miaketa gehiegizkoak, irainak, euren sexu-intimitateari buruzko galdeketa inbaditzaileak, sexu-umiliazioak, etab.

Beren bizipenak kontatu dituzten emakumeen lekukotasun errepikatuek zera diote: beren sexu-nortasunean edo -lehentasunetan zirikatze iraingarriak, haien fisikoari buruzko umiliazioak eta isekak, arrazoirik gabeko biluztaldi luzeak, gehiegikeria eta baita sexu-erasoa ekar lezaketan ukituak, gorputzaren beharrei dagokienez intimitatea bortxatzea eta zirikatzea, gorputza eta hilekoa garbitzea eragozteak, bortxaketa mehatxu eta keinuak, baita tresna edo armekin ere, edo sendiko emakumeei, amari edo ahizpa eta arrebei dagozkienak...

Gai horri buruz, lekukotza asko jaso da:

“Ukituak izan zituen, behin eta berriz jo zuten ipurmasailetan erregela batez, ma-sail, sabel eta gorputzeko beste atal batzuk behin eta berriro ukitzen zizkioten, biluztuko zutela mehatxatzen edo iruzkin sexistez umiliatzen”.

“Tira, tira, biluzteko!, eta zakar kendu zioten gerrian zeraman jertsea. Azkenik, ez zuten biluztu, baina hirugarren galdeketa ukituak egin zizkieten. Iraindu egin zuten, “Urdanga!, beste batzuen artean”.

“Une jakin batean, polizietako bat ‘niregana makurtu zen eta poliki-poliki masailak ukitu zizkidan, horrekin atsegin hartuz bezala’. Beste bat hurbildu zitzaion ere pega-pega jartzeraino: “Gerria besoaz inguratu zidan eta sabelaldea laztantzen hasi zitzaidan irribarre ziniko batekin”. Gainerako poliziek begira ari ziren. Azkenik, agenteak mespretxuzko keinua egin eta askatu egin zuen”.

Birritan jaso zituen presioak, lehena, “Indautxuko komisariara zeramatela, bidean jasan zituen, eta ibilgailua mendiko bide batera desbideratzeko imintzioa ere egin zuten jite sexualeko proposamenen artean”. Bigarrena, polizia-autoan, Bilbotik Madrilerako bidean, “bost poliziarekin batera zihoan; gizonezkoak denak, eta sexu-gehiegikeriak jasateko beldurrez jarri zuten mehatxuak eta iruzkinak egiten zizkieten etengabe”.

Era berean, Batzorde honen aurrean lekukotasuna eman duten gizon ugari salatu dute galdeketa zehar agenteek nola esaten zieten bikotekideak edo arreba atxilotu egin zituztela, iraindu egiten zituzten, eta mehatxu egiten “denetarik egingo zitezela”. Are gehiago, emakumeen oihuak edo grabazioak entzunarazi zizkieten, benetan han ziren ala ez zalantza sortzeko asmoz:

“Irain eta mehatxu matxistak jasan zituen, eta agenteek bikotekidea ekarri, torturatu eta bere aurrean gehiegikeriak egitearekin mehatxatu zuten”.

Era guztietako “irain, umiliazio eta lohikeriak esan zizkieten emazteari buruz, haurdun baitzegoen. Esaten zioten bidean zegoen alaba ETako beste buruzagi batena zela, ez senarrarena: ‘zure emazte urdanga horrek esan digu ez dakit zer...’, eta emazteari: ‘Denak puta batzuk zarete”.

“Nire bikotekidea bortxatzearekin mehatxu egin zidaten” / “Emakumeei buruz lizunkeria gordinak esaten zituzten”.

“... hemen daukagu zure ama puta zahar hori, eta beste aldean zure arreba puta hori ere bai. Orain, itaunketa egiten ari gatzazkie”.

3.7.5. Atxiloketa arbitrarioak eta babesik eza

Salbuespen-egoeretan, komisaria edo kuarteletan eta, ondoren, espetxean egiten ziren egonaldiek egun asko iraun zezaketen. Batzorde honen aurrean lekukotza eman zuten pertsonetako batzuk 21etik 23 egunera bitartean egon ziren atxilotuta eta inkomunikatuta. Haietako batzuk espetxera eraman ondoren, berriro atera zituzten komisariara eraman eta galdeketeekin jarraitzeko.

“Atxiloketa epaitegiko errequisitoriarik edo agindurik gabe eta aurretiazko zita-ziorik gabe egin zen, iker zitezkeen gertaera edo egitatei buruz deklaratzeari inolako erresistentziarik erakutsi gabe. Ez zuen abokaturik. Kasua artxibatu egin zen, eta ez zen epaiketarik egon”.

“Hogei bat egun igaro ondoren, Basauriko espetxera eraman zuten eta egun batzuk geroago espetxera epaile bat joan zitzaion, Durangon bistaz ezagutzen zuena (bake epaile gisa identifikatu zuen), eta deklarazioa hartu zion, abokaturik gabe. Hiru aste igaro ondoren, aske utzi zuten kargurik gabe”.

Espetxean egon zen hilabeteetan “Bizkaiko abokatu baten bisita jaso zuen birritan, baina ez zen bere defentsaz arduratu. Aske atera zen kargurik gabe, inongo epaiketa auzibidetan sartuta egon gabe, eta inork azalpenik eman gabe. “Inoiz ez dut ezer gehiago jakin”, adierazi zuen.

Komisariatetik edo kuarteletatik igaro ondoren, torturak eta tratu txarrak salatu zituzten 28 lagunak egoera honetan geratu ziren:

- Aske, kargurik gabe: 12
 - Espetxera bidali zituzten: 10
 - Espetxean denbora batez egon ondoren, kargurik gabe aske utzi zituzten: 2
 - Espetxeratuak, epaiketaren ondoren aske geratu ziren: 2
 - Behin-behineko askatasunean: 2
-

3.7.6. Errepikatzen den beste ezaugarria: salatu gabeko kasuak.

Batzorde honen aurrean lekukotza eman duten atxilotutako pertsona gehienek ez zuten salaketa jarri nahi izan; izan ere, “errepresalien beldur” ziren eta halakorik egiten zuenaren “aurka jotzearekin mehatxatu” zituzten:

“Ez zituen tratu txarrak salatu ondorioen beldur zelako. Halakorik eginez gero bere bila itzuliko zirela esan zioten”.

“Arlo psikologikoan, gertaeraren unean eta hiru hilabete igaro arte, gorrotoa eta amorrua sentitu zituen, ohartu baitzen berari gertatutakoa ohikoa zela, beste pertsona batzuei gertatzen jarrarituko zuena. Barneratu zuen, bestetik, bizi zen egoera politikoa zela-eta gertatu zitzaiona salatzeak ez zuela deusetarako balio izango. Gainera, beldur zen salaketa batek berarentzat eta bere familiarentzat ondorio negatiborik ez ote zuen izango”.

Handik bi-hiru egunetara kartzelara bertaratutako epaileak hartu zion deklarazioa. Hari, tratu txarra jasan zuela beldurrez eta erdizka aipatu zion, guardia zibilek kuartelean egindako mehatxuak gogoan zituela: “- eta zeozer esaten baldin baduzu...”

3.8. Eskuin muturreko taldeen edo talde parapolizialen beste eraso batzuk.

Hemen sartzen dira ageriko babesgabetasuna jasan zuten pertsonen eta ondasunen osotasun morala eta psikikoa urratzea eragin zuten erasoak. Soilik 1975eko maiatzean, talde parapolizialek eta eskuin muturreko taldeek 50 atentatu eta eraso egin zituzten euskal lurraldean.

Batzordeak Bilbon erasotako San Miguel banaketa-etxearen kasua ezagutu du. Atentatua zigorrik gabe geratu zen eta antolatutako pertsona talde batek egin zuen. Talde horrek armak eta burdinazko barrak zeramatzan eta Madrilgo Seguratasuneko Zuzendaritza Nagusiko (DGS) matrikulak zituzten bi ibilgailutan mugitu zen. Lokalean zeuden balio handiko material inprimatua, liburuak eta argitalpenak suntsitu zituzten.

3.9. Biktimei sufrimendua eragiten dieten beste ekintza eta ez-egite batzuk

3.9.1. Biktimaren aldekoak ez diren jarrerak

Batzordeak, era berean, egiaztatu du elkarrizketatutako biktimek, jasandako giza eskubideen urraketa larriez gain, beste jarrera batzuk bizi izan dituztela hainbat era-

kunde edo agintariren aldetik, eta horiek haien sufrimendua eta abandonu sentsazioa areagotu egin dituztela:

- Arartekoak ez zion erantzunik eman bere eskaerari.
- “Familiak ez zuen jaso agintaritzaren edo erakunde-ordezkaritzaren berririk, azalpenik edo laguntzarik”.
- Inongo agintaririk ez zen inoiz familiarekin harremanetan jarri ofizialki seme eta anaiaren heriotzaren berri emateko.
- Ez zizkieten bere puskak eman: arropa, erlojua, diru-zorroa, argazkiak...
- Are gehiago, semearen gauzarik ez dute, Guardia Zibilak miaketa ezberdinetan -as-tero gertatzen zirenak- dena eraman zuelako eta inoiz ez dio ezer bueltatu”.
- “Amak eta bere seme-alabek ez zuten inoiz laguntza pertsonalik edo ekonomikorik jaso inongo erakunde edo gobernuren eskutik. Inork ez zien barkamenik eskatu”.
- Kondenatutako poliziak ez ordainduz gero Estatuari legokiokkeen erantzukizun zibil ordezkatzailetik absolbitu izanak, familia kalte-ordainik jaso gabe utzi zuen, poliziak ez baitzuen kalte-ordainik ordaindu.
- “Epaileak kargurik gabeko askatasuna agindu zuen arren, Carabanchelera eraman zuten berriro. Biktimaren harridurarako, dekretua espetxera iritsi arte itxaron behar zela esan zioten. Hortaz, 21 egun egon behar izan zuen espetxean, aske geratu arte”.
- “Poliziak kontrolak jarri zituen hileta-zerbitzuetara askatasunez sartzea eragozteko. Guardia Zibileko kapitaina elizan sartu zen eta hileta-ekitaldia geldiarazten saiatu zen. Irtetean, Polizia Armatua bertaratutakoan aurka oldartu zen kulata-kolpeka eta hilerrira soilik familiari utzi zioten bertaratzen, zeinak mota guztietako irainak eta umiliazioak jaso zituen”.
- “Espetxetik irtetean, frankismoan izan zuen militantzia zela-eta, arazo handiak izan zituen lana aurkitzeko, eta hainbat lantokitan ukatu egin zioten.
- “Kargurik gabe aske utzi ondoren, Guardia Zibila agertzen zen bere ardurapeko tabernan; mahai batean esertzen ziren eta han orduak egoten ziren. Ez zuten hitz egiten, baina noizean behin esaten zioten: ‘non dabil zure zure arreba?’. Eta hanka egiten zuten”.

3.9.2. Familia osoari eragiten dioten sufrimenduak

Familia batzuen esanetan, sufrimendua ez zen amaitu salatutako gertaerekin. Geroztik bizi izan dituzte atxiloteta, atentatu eta bestelako istorioak, familiako kide ezberdinak ukitu dituztenak, baita belaunaldi ezberdinetakoak ere.

- “Atxilotetaren arrazoi bakarra bere ahizpa Baionara bisitatzera joatea izan zen; hogeit hamar pertsona baino gehiagoren aurkako polizia-operazio berean, haren aita ere atxilotu zuten”.
- “Atxiloteta hau gehitu behar zaio familia bereko beste hainbat kide atxilotzeko kate bati. Semea bost aldiz atxilotua zen aita atxilotu zutenerako. Atxiloteta gehiago saihesteko, Bidasoa ibaia igaro eta Baionan kokatzea erabaki zuen. Bere beste semeak ere Guardia Zibilarengandik ihes egin zuen bere anaiak hori bera egin eta urte eta erdi geroago, eta denboran aurrerago 15 urtez egon zen espetxean. Horrez gain, koinatu bat ere atxilotu zuten, eta urte batzuk geroago biloba bat”.

- “Hurrengo urteetan, familia ‘beti beldurrez’ bizi izan zen Poliziaren jazarpenaren eta mehatxuen ondorioz. Arreba 1973an eta 1975ean atxilotu eta torturatu zuten, azken honetan bere anaiarekin batera, gogor torturatua izan zena baita ere. Garai hartan ere, ama Donostian manifestazio batean atxilotu eta kalabozora eramán zuten”.

- “Guardia Zibilak etengabe jazarri eta zapaldu zuen familia. Bere ama eta anaia gauez, kaleko jantziz, familiaren etxean indarrez sartu ziren guardia zibilek atxilotu zituzten, ‘*piztiak bezala*’ sartu ziren eta izua zabalduz. Ama eta anaia bat La Salveko kuartelera eramán zituzten, eta torturatu egin zituzten. Kuartelean zazpi egun eman ondoren, Basauriko espetxean sartu zituzten zuzenean, eta hainbat hilabetez egon ziren bertan. Ez ziren inoiz epaituak izan eta ez zen haien aurkako kargurik aurkeztu. Gerora, Poliziaren jazarpenak eta zelataldiek jarraitu zuten. Kalean jarraitzen zituzten.

- “Ia familia osoa izan zen “Gerra zikina” deiturikoaren helburu: 1975eko maiatzaren 11n lehergailua jarri zioten Kanpazar gaineko sendiaren jatetxean eta ekainaren 28an garaiz aurkitu zuten beste lehergailua anaietako batek Baionan zuzentzen zuen jatetxean. Jardundegia hustu egin zuten eta ez zen zauriturik egon. Hilabete geroago, uztailearen 26an, Kanpazarren lehergailu batek kalte handiak eragin zituen jatetxean, eta familiako hiru ibilgailu metraileta-tiroz jo zituzten. 1975eko urriaren 5ean, identifikatu gabeko hiru pertsona metrailetaz, pistolez eta gas-jaurtigailuez armatuta sartu ziren bi anaiek Kanpazar gainean kudeatzen zuten jatetxean. Bieta-ko batek bere burua biltegiaren ezkutatu ahal izan bazuen ere, bestea balek harrapatu eta hil egin zuten, ‘zuen bila gatoz!’ oihua entzun ondoren. Egun haren bezperan, laugarren anaiaren autoari Donibane Lohizunen su eman zioten”.

Zenbait pertsona Andaluziako edo Extremadurako urruneko herrietara bidali zituzten. Adibidez, Eibarren atxilotutako lagun bat, oso adin txikiko haur baten aita, Zafarrayan (Granada) konfinatu zuten eta bost hilabete inguru eman zituen bertan.

Askotan, sufrimendu horiek isilpean eramán zituzten, eta, kasu batzuetan, denboran luzatu dira eta ondorengo belaunaldietara igaro dira:

- “Horrek aita eta ama hil zituen. Nire amak depresio izugarria jasan zuen. Aitak zion hil egin nahi zuela berarengana joateko”. / “Negarrez ikusten genuen isiltasun osoan”.

- Gertatutakoaren eraginak beldurra, izua sortzen du, ondorio psikologikoak... bai biktimari berari bai bere familiari. “Betirako markatu gintuen”. / “Beldurra genuen”. / “Guardia zibil bat ikusteak oraindik hotzikara sortzen digu”.

- “Haren alargunak kontatzen duenez, lehen egun horien ondoren ez zuen gehiagorik hitz egin gau hartan kuartelean gertatuaz; orria pasa nahi zuen, bere sufrimendua isilean gorde arren. Inoiz ez zien gertakari haiengatik herra edo gorrotorik txertatu semeari eta alabari”.

- Aita erail izanaren ondorioz, bai emazteak bai seme nagusiak tratamendu psikiatrikoa jaso zuten urte askoan, bai osasun publikoan, bai erietxe pribatuetan, eta oso gastu handiak eragin zituzten, emazteak hutsik bere patrikatik ordaindu behar izan zituenak. Semeak ez zuen inoiz gainditu eta bere etorkizun pertsonal eta profesionalaz ondutako itxaropen guztiak betirako zapuztu ziren.

- “Izua zion Guardia Zibilari eta oso urduri jartzen zen errepidean haiekin gurutzatzen baldin bazen. Trantsizio-garaian, muga berriro gurutzatu ahal izan zuten

senideak bisitatzeko, eta aitak ez zuen bere burua lasai sentitzen ez eta salbu, bere etxera itzultzen ziren arte”.

3.9.3. Ikur desberdineko indarkeriak

Egoera batzuetan, pertsona berak indarkeria anitza pairatu izan du, eragile edo biktimagile ezberdinengandik. Bai aurreko lege-dekretuarekin sortutako batzordearen aurrean, bai balorazio-batzorde honen aurrean, bizitzan zehar hainbat motatako indarkeria jasan duten pertsona batzuen lekukotasuna jaso dugu.

Horren adibide da Poliziak torturatu ondoren eragindako zauriengatik erietxean 71 egun eman zituen lagunarena. Urte batzuk geroago, ETako kideek gidatzen ari zen autoa pistola baten mehatxupean lapurtu egin zioten. Mendian zuhaitz bati katez lotuta utzi zuten eta komandoak Donostian erretiratutako azpitente bat hil zuen. Urte batzuk geroago, AGIPADen psikologo zela, droga-mendetasunari aurre hartzeko plan batean lan egitea onartu zuen, zeinaren helburua baitzen Martuteneko espetxe-ko presoen gai soziosanitarioak aztertzea. Ezin izan zuen lana amaitu, denbora batez Euskaditik alde egin behar izan zuelako Poliziak ETako Donostia komandoari harra-patu zizkion paper batzuetan bere izena agertu ondoren.

3.9.4. Ondorengo mehatxuak

Kasu askotan (zazpi gutxienez), biktimek eta haien familiek mehatxu eta irain anonimoak jaso zituzten gertaeren ondoren. Batzordean aurkeztutako kasu batzuetan, etxebizitzaz edo telefonoz aldatu behar izan zuten, baita udalerriz ere.

Beste kasu batzuetan, mehatxuak bete egin ziren:

“1979an, atxiloketa batean, kuartelean zegoela, autoa non gordetzen zuen galdetu eta egun gutxira, kalean su eman zioten. K.J., eztanda entzunda, lekura hurbildu zenean, 20 metrora guardia zibilak zeudela ikusi zuen, zer gertatzen zen ikusterra ere hurbildu ez zirenak. Salaketa jartzerakoan, gertakarien egileari buruzko susmorik ba ote zuen galdetuta, ez zuten ondo hartu gazteak Guardia Zibila bera susmagarritzat hartzea. Salaketa han utzi bazuen ere, ez zuen aurrera egin”.

3.10. Biktimek eskatzen dutena

Gertatutakoaren egia aitortzea eskaera orokorra da Batzorde honen aurrean lekukotza eman duten biktimen artean. Eskaera horri oraindik erantzun egokirik eman ez izanak eta erakundeen eta hemen aipatutako giza eskubideen urraketetan inplikaturako polizien aitorpenik ez egoteak bi aldiz biktimizatu ditu, eta areagotu egin du haien eta haien familien eta hurbilekoen sufrimendua.

Jarraian, Batzorde honen aurrean egindako hainbat eskaera nabarmenduko dugu:

- Gertatutakoaren egia jakitea:

“Zer gertatu zen jakiteko eskubidea dugu”. “Ezin dugu orria beste aldera itzuli egiarik ez badago”. / “Jakin bedi zer gertatu zen”.

“Ezagutuko al da egia egunen batean? Ez dakit. Guardia Zibilak botere handia du. Ez dut uste ni egia ezagutzera helduko naizenik”.

- Gertatutakoa jasota gera dadila:

“Memoria asko daudela diote, eta denek toki bat behar dutela gaineratzen dute”.

“Agertzen den guztia garrantzitsua da. Sufrimendu eta isiltasun handiko urteak izan dira.

Ez zen inoiz ezer komentatzen. Ez genuen galdetu ere egiten”.

“Gertatutakoaren memoria idatzita geratzea eskertuko lukete”.

- Eragindako kaltea aitortzea:

“Familiak uste du, garai hartako erakundeek egin ez bazuten ere, aukera honetan kuartel eta komisarietan gertatutako guztia argitara ateratzea nahi luketela, gertatu den guztia jakitea eta Estatuak aitortzea eragin zuen indarkeria-parte hori”.

“Familiak dio garaian sentitutako gorroto eta amorrazioa gaur egun gainditu dituztela baina sufritutakoaren aitortzea behar dutela”.

- Ez dadila gertatu berriro gisa horretakorik (ez errepikatzea):

“Torturei aurre hartzeko konpromisoa lortzea”.

“Gertatutakoa onartzen ez bada eta sistematikoki torturatu duten poliziak zigortzen ez badira, eta torturara itzultzea saihesteko bitartekoak jartzen ez badira, ez dago berriaz gertatu ez denaren bermerik”.

“Publikoki ezagutaraztea izan dadila baliagarria datozen belaunaldiek gorrotorik izan ez dezaten”.

- Gertatutakoaren arduradunak nor izan ziren jakitea.
- Justizia egin dadila, “ahal den neurrian behintzat”.
- Diktaduraren aurka borrokatu zirenen duintasuna:

“Geunden lekuan geundela”.

“Militante gisa izan zuen konpromisoa eta duintasuna aitortzea, ‘berak eta beste jende batek’, nola baita ere garai hartan diktadurari aurre egiteko izan zuen adorea aitortzea. ‘Nik oso argi daukat diktaduran borrokan ibili zen jendea, ibili ginenok eta bizitza eta beste gauza asko arriskuan jarri genituenok begirunea eta duintasuna merezi dugun jendea garela. Gauza ez da erraza, baina bizikidetzaz ezin da faltsutasunean, bidegabekeria, batzuen demonizazioan eta beste batzuen dohatsutasunean oinarritu”.

- Biktimatza hartzea:

“Besteak bezala”.

“Niretzat, biktimei buruz hitz egiten dutenean eta soilik batzuei buruz ari direnean, istorioa amaitu izan balitz bezala, hor esango nuke ni mintzen ari direla”.

4. Auzitegi-psikologiaren eta medikuntzaren ikuspegia:

Auzitegi-mediku eta -psikologoek aditu-txostenak egin dituzte 43 kasutan, eta horietan 2021eko uztailetik 2022ko ekainera bitarteko aintzatespen-ebazpen bat jaso da.

- Heriotza eragin duten kasuak: 6 kasu. Kasu batean aditu-txostena ondoriorik gabea izan zen, beste bati gehieneko bateragarritasuna iritzi zitzaion eta 4 kasutan bateragarritasuna oso sendoa izan zen.
- Tratu txar edo tortura gisa katalogatutako kasuak (k = 28). 14tan, trinkotasuna maila ertainekoa izan zen; 10etan, oso sendoa; eta 4tan, adituarena ondoriorik gabea izan zen.

- Beste 8 kasuak lesioengatik izan ziren, gehienetan gomazko pilotagatik edo bala-talkagatik. Lautan, sinesgarritasun iritzia oso sendoa izan zen, batean trinkotasun handienekoa, eta hirutan, berriz, maila moderatukoa.
- Ondorio fisikoak 10 kasutan deskribatu ziren, eta ondorio psikologikoak 13 kasutan.
- Legearen baremoari dagokionez, 11 kasutan sekuelak 1 eta 5 puntu artekoak izan ziren, 4tan 8 eta 15 puntu artekoak eta 3tan 20 puntutik gorakoak. Gainera, erabateko ezintasun iraunkorreko kasu bat egon zen.

Balorazio Batzordeak, peritu-taldeak proposatuta, aho batez erabaki du biktimaren aldeko kalte-ordainen irizpide bat finkatzea, 12/2016 Legearen xede diren biktimen aitortpena eta erreparazioa duintze aldera, Estres Postraumatikoaren Nahasmenduari lotuta garrantzi nahikoa duten ondorio psikopatologikoak izan dituzten kasuetan, baldin eta, egiaztatzen baldin bada, azkenean garapen pertsonala behin betiko mugaratu ez duten arren, garapen horretan iraunkorki zama eta eragozpen izan direla, maila ezberdinetan, jasandako urraketa gertatu zenetik igarotako denboran.

Kasu horiek, eta kasu larri eta baliogabetzaileen banakako balorazioa alde batera utzita, 30/2015 Legearen baremo medikoarekiko analogia bidez baloratuko dira, EPTNren sekuela gisa maila moderatuaren puntuaziorik handienean (5 puntu) batez besteko 25 urteko adinerako (adin-tarte gisa 20-30 urte bitartekoa hartuta, duindu nahi den urraketa-aren unean ohikoenak horiexek izaten baitziren).

III. Gomendioak.

Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak, berezko diziplina juridiko gisa, interpretatzeko eta ezartzeko berezko metodo juridikoa ere badu; metodo horrek eskubideen zentzuari eta muinari erantzuten die, horiek gordetzen ditu, alegia, “*Pertsonaren aldeko ikuspuntua*”.

Ikuspegi horrek pertsonen giza eskubideak erabat eta modu eraginkorrean bermatzeko emaitzarik onena lortu nahi du, eta horixe izan da, hain zuzen ere, Batzorde honen lana gidatu duena eta gidatzen ari dena uneoro; eta ikuspegi hori, gainera, oinarria da jarraian aurkeztuko dugun hainbat hobekuntza gomendio egiteko, eskubideak erabat berma daitezen.

Horrela, urteko lehen txostenean jada jaso zen bezala, *progresibitatean* oinarrituta pertsonaren aldeko ikuspegiaren funtsezko osagai gisa, Batzorde honek adierazten du egokia, komenigarria eta beharrezkoa dela babestutako eskubideen kopurua eta edukia handitzea, bai eta eskubide horien indarraldia bermatzeko xedea duten prozeduren eraginkortasuna eta erabilgarritasuna ere.

1. Balorazio Batzordeak 2021eko ekainaren 23ko txostenean egindako gomendioen betetze-maila

2021eko txostenean, lanaldiko lehen urteari buruzkoan, Batzordeak, 12/2016 Legearen edukiari jarraiki, hainbat gomendio egin zituen III. idazpuruan, zehazki zazpi, eta horien betetze-mailari buruzko balorazioa jarraian aztertuko dugu.

1) Urteko Aitorpen Ekitaldi Instituzionala: betetzat jotzen dugu. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak funtsezko eskubideen urraketen biktimei aitortpena emateko ekitaldia egin zuen ekainaren 26an, Bilboko Euskalduna Jauregian. Ekitaldi horretan, Justizia sailburuak, Giza Eskubideen zuzendariak, Balorazio Batzordeko buruak eta batzorde horretako kide guztiek esku hartu zuten eta arrazoi politikoengatik pertsona askok jasan zituzten giza eskubideen urraketa larrien errealitatea aitortu zen eta,aldi berean, egia ezagutzeko eta justizia, erreparazioa eta ez errepikatzearen bermea jasotzeko dituzten legezko eskubideak aldarrikatu ziren. Era berean, Justizia sailburuak, Batzordearen lehen lan-urteko irizpenen gai izan ziren biktima jakinei zegozkien ebazpen aintzatesleak eman zizkien.

Ekitaldi horretara, nahi izan zuten biktimez gain, senideak, talde politiko ezberdinetako legebiltzarkideak eta beste agintari batzuk joan ziren. Biktimek zegozkien protagonismoa izan zuten eta beren gogoz parte hartu nahi izan zutenen lekukotasunak entzun ahal izan genituen, bertaratutako guztiekin eta komunikabideekin ere partekatuz. Ekitaldi horrek Balorazio Batzordea ikusarazteko ere balio izan zuen.

Gainera, Migel Mari Zabalza Garateren espedientearen ebazpena zela eta, bi ekitaldi egin ziren: bata, aurtengo otsailaren 21ean, familiarekin Orbaizetako baserrian. Ekitaldi horretan, Justizia sailburuordeak, Giza Eskubideen zuzendariarekin eta Balorazio Batzordeko buruarekin batera, Migel Mari giza eskubideen urraketa biktima izan zela aitortzen zuen Ebazpena eman zion familiari, dagozkion ordaintza-neurriak ezarrita. Eta otsailaren 27an, aitorpen publikoko ekitaldia egin zen Orbaizetan; bertan Justizia sailburuak, sailburuordeak, Giza Eskubideen zuzendariak, Balorazio Batzordeko buruak eta kideek parte hartu zuten. Migel Mariren neba-arrebak eta ilobak

bertaratu ziren, bai eta jende anitza ere, Migel Mari eta bere familiari ohore egitera etorriak denak.

2) Era berean, oro har 12/2016 Legearen helburuak, Balorazio Batzordearen lana eta 2021eko abenduan amaitutako eskaerak aurkezteko epea iragarri eta jendaurrean eza-gutzerara emateko egindako gomendioak neurri batean bete dira. Horretarako, EITBK dokumentala ekoitzi zuen, *“Ahanzturatik ateratzen”* izenburupean (Memoria eraikiz, III), 2021eko abenduan zehar katean eman zuena.

Biktinek eta Batzordeak berak oso positibotzat jotzen dituzte bi ekitaldi horiek.

3) Era berean, neurri batean bete da *“Legea bete ahal izateko behar beste zuzkidura”* osatzeko gomendioa, Eusko Jaurlaritzatik jasotako laguntzaren bidez egindakoa, ezen, IVAC/KREIko langileekin indartu egin baitira (tortura ikertzeko egitasmoan parte hartu zuten 2 lagun) Batzordearen lanerako giza-baliabideak, 2022ko urtarrietik aurrera.

2. 2022ko ekainaren 29ko txostenerako gomendioak

Batzordeak honako hauek aurkezten ditu:

2.1. Biktimak aitortzeko ekitaldi instituzionalak.

Ezin dugu ahaztu ordaintza edo erreparazio neurrien balio sinbolikoak duen garrantzia, eta zer ondorio dituen egia ezagutzeko eskubiderako eta memoria kolektiboa eraikitzeko.

2021eko txostenean adierazi genuen bezala, elkarrizketatutako biktima gehienek adierazi duten sentipena da isiltasunetik irteteko premia dutela, euren burua ikusaraztekoa, eta hori kontuan hartzea eskatzen dute, jasandako giza eskubideen urraketa larriak, sufrimendua eta egia aitortzera emanez. Hori dela eta, Batzordeak berretsi egiten du euskal erakundeei egiten dien gomendioa; hots, urtean behin gutxienez maila goreneko aitorpen edo errekonozimendu ekitaldia egitea jendaurrean, biktima horien esku hartzea gauzatuz ospatzen diren oroitzapen ekitaldi ezberdinetan. Hori guztia, erakunde aitorpen edo errekonozimendu beste ekitaldi pertsonalago eta bereiziago batzuk egitearen kalterik gabe, interesgarria gerta baitaiteke.

2.2. Legebiltzarraren bultzada.

Batzordeak, bere Irizpen guztietan, akordio bat sartu du, zeinaren bidez *Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari eskatzen baitie biktima horien oroitzapenarekin duten betebeharrak publiko kontuan izanik, bere aitorpen edo errekonozimendu ekitaldi guztietara bil ditzatela. Era berean, Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari gomendatzen die eskaera bera egin diezaietela Estatuko erakundeei, zentzu herberean joka dezaten, aintzat izanik aztertutako gertaeretan bere segurtasun kidego eta indarrek duten erantzukizuna.*

Horrenbestez, akordio honen bidez Eusko Legebiltzarrari eskatzen diogu, batez ere Batzorde honen lanaren bidez edo egokituz jotzen dituen mekanismoen bidez, eginkizun proaktiboa har dezala biktima horiei aitorpena eta erreparazioa emateko prozesuan, eta bere laguntza eman dezala giza eskubideen urraketa larriak berriz ez gertatzeko bermatze lanean, gure lana egin ahala egiaztatu ditugunen gisakorik gerta ez dadin, hain zuzen ere.

2.3. Legea erreformatzeko gomendioa.

“Ondorio erabilgarriaren printzipioa” pertsonaren aldeko ikuspegiaren osagaia da. Printzipio horren arabera, arau erregulatuzailearen argitan kasu jakin bat aztertzean egiten den interpretazioak ondorio egokiak izan behar ditu giza eskubideen urraketan biktimatzat aitortutako pertsonentzat, haien babesgarri guztiak egingarriak eta eraginkorrak izateraino, haien xedea eta helburua kontuan hartuta.

Hala ere, jarraian zehazten den bezala, Legearen egungo idazketak galarazi egiten die biktima gisa aitortutako pertsona batzuei arauaren ondorio egokiak lortzea. Hori dela eta, Batzorde honek honako aldaketa hauek proposatzen ditu, premiaren arabera bi bloketan bana daitezkeenak.

2.3.1. Premiazko aldaketa: kalte-ordainak. 12/2016 Legeak, ezarri ahala, legea bera aldatzea gomendatzen duten zenbait gabezia azaleratu d gau. Gabezia horietako batek aurreikusitako kalte-ordainen erabideari eragiten dio, eta haren aldaketa, Batzorde honen ustez, oso premiazkoa da, nahitaez hartu behar ditugun erabakien egunerokotasunari eragiten baitio. Lehenik eta behin, erabide horren erroko egokitasun eza dago biktima horien errealitatearekin eta jasan zituzten urraketan etiologiarekin. Eta, bigarrenik, nagusiki eragiten die 9.2 f artikuluari (baliogabetzerik ez dakarten lesio iraunkorrak) eta 9.3 artikuluari (kalte-ordainik ez ematea tratu txar larrietan eta lesio iraunkorretan), bidegabekeria galantak sortzen baititu giza eskubideen urraketa larrietan, zeinak edo ezin diren ordaindu edota kalte-ordain barregarria sortzen duten, kalte-ordain izenik ere merezi ez duena. Sufrimendu fisiko eta psikiko kasu ugariak; epe labur, ertain eta luzean sortutako ondorioak; bizitza egitasmoan eta bizi-kalitatean izandako eraginak, horiek guztiak kasuistika luze, konplexu eta larriaren bidez ari dira egiaztatzen, zeinak, gertakariak izan zirenetik igarotako denbora-tarte luzearekin batera, ageriko distortsioak eragiten baititu aipatutako lege-esparruan. Premiazkoa eta beharrezkoa da 9. artikulua sakon aldatzea. Eta, bereziki, tratu txarren eta torturen kasuetan kalte-ordaina emateko ezintasuna indargabetzea, eta kalte-ordainen aukerak aberastu eta malgutzea lesiorik gertatu denean, iraunkorrak izan ala ez.

2.3.2. Epe ertain eta luzeko beste aldaketa batzuk. Kalte-ordainaren arloan premiazko erreformaren bat eginez gero, balia liteke agerian gelditzen ari diren beste alderdi batzuk aldatzeko, hobe daitezkeelako edo egokitzapen teknikoak behar ditzaketelako. Une honetan, komeni da honako hauek aipatzea, sakontzeko asmorik gabe: Legearen denbora-eremua zabaltzea; legearen xede izan behar duten giza eskubideen urraketan kasuak zabaltzea; osoko bilkuraren osaera eta funtzionamendua doitzeko kide anitzeko organoaren eraketa arinagoa eta malguagoa izan dadin, haren lan-gaitasuna kualitatiboki handitu ahal izateko; eta, azkenik, haren eduki batzuk oroimen historiko eta demokratikoari buruzko araudi autonomikoarekin eta estatukoarekin koordinatzea. Alderdi horiek, zalantzarik gabe, abiapuntu izan daitezke legebiltzarreko batzorde txostengile batek legegintza-erreforma bat prestatzen joateko, jada Eusko Legebiltzarrari buruzko gomendioan iradokitzen den bezala.

2.4. Biktimak babesteko betebeharrak publikoak.

Batzordeak berretsi egiten du, 2021eko txostenean adierazi bezala: “*Erakunde publikoak, eta, bereziki, alderdi eta ordezkari politikoei eskatzen diegu kontuan har dezatela gai honi buruzko beharrezko eztabaida demokratikoak zuhur jokatu behar duela eta biktimaren aldeko begirada izan behar duela, Batzordera joan diren pertsonak berriz biktima*”

mizatzea saihesteko; izan ere, urte gehiegiz daramatzate herrestan ahaztura, aitorpenik eza eta baita, askotan, laidoztatze bidegabea eta bere existentzia bera ukatzea ere”.

2.5. Batzordearen lana zabaltzea.

Balorazio Batzordeak Legebiltzar honetara bidali behar dituen urteko txostenak argitaratu egin beharke, Gogora Institutuan gordetzeaz gain, aurkeztu ondoren, sistematikoki eta masiboki igor dakizkion Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-uztai osoari, baina baita Estatu osokoari ere, eta, bide batez, erabilgarritzat izan ditzaketen politika-, gizarte-, sindikatu-, hezkuntza- edo bestelako eragile guztiei. Biktima horien errealitateak ezkatatuta jarraitzen du eta azalertzeko zailtasunekin. Horregatik, txostenak zabaltzeak haien errealitatea hobeto ezagutzen lagundu behar du. Horretarako, gainera, urtero edo bi urtean behin nazioarteko mintegi bat egitea proposatzen da, haren aitorpenaren egoeraren berri emateko. Mintegi hori Giza Eskubideen Batzordeak berak eta Eusko Jaurlaritzak babes, gida eta susta dezakete, Balorazio Batzordearen eta biktimen erakundeen partaidetzarekin. Mintegi horren helburua litzateke errealitate hori Estatu espainiar osoan zabaltzea, baita haren errealitatea ikusaraztea ere gai honetan Europako eta nazioarteko eremuetan gauzatzaren diren beste ekimen eta jardunbide egoki batzuekin alderatuta.

2.6. Baliabideen hornidura.

Txostenak erakusten du Balorazio Batzordearen legezko diseinua eta legezko aurreikuspenak oso zurrunik eta disfuntzionalak direla, bai instrukzioa egiteko (nahitaezko peritazioa barne), bai espedienteak ebazteko.

Egia esan, lege-esparruaren zurruntasunak eta gaur egun eskuragarri dauden baliabideek ezinezko egiten dute urtero behar adina eskaera bideratzea, eta horrek arrazoirik gabeko atzerapenak eragiten ditu; gainera, zaputza, ezintasuna, zigorgabetasuna eta min eta sufrimendu gehigarriak eragiten dizkie eskaerak aurkeztu dituzten pertsonen eta haien senideei.

Balorazio Batzordea, lanean bi urte eman ondoren, baliabide berriak jaso dituen arren, kideek ahalegin handia egin eta lanean ahalik eta azkarren aritzeko kezka eta lehentasuna izan duten arren, ez da gai behar adina espediente eraginkortasunez izapidetzeko, egindako eskaerak garaiz eta behar bezala ebatzi ahal izateko. Aitorpen-erantzuna emateko eginbidea urtetan eta urtetan luzatzea ez da legearen ikuspegitik eutsi dakioken egoera, baina ezta ikuspuntu etiko edo politikotik zuri litekeena ere. Gai honek kinka larrian jar dezake Batzordeak eta lege-mekanismo horrek biktimei eta haien eskubideei dagokienez eskaini behar duen sinesgarritasuna eta ordaintza edo erreparazio-eginkizuna.

Horregatik, dagoeneko hornituta dauden baliabideez gain, Gobernuak bereziki indartu egin beharke idazkaritza teknikoa, zerbitzu-eginkizunetan dauden funtzionarioen bidez edo generoaren eta giza eskubideen arloko prestakuntza berariazkoa duten langile baliokideen bidez. Izan ere, baliabideak indartu beharra ez da konpontzen Administrazioaz kanpoko behin-behineko laguntzekin edo Administrazioaz kanpoko idazkaritza teknikoekin. Instrukzio-lanak eskatzen du, halaber, Administrazioako langile gehiago izatea, haien jarduna guztiz eraginkorra izan dadin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekaina